

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
GIZARTE HEZKUNTZA GRADUA

IKD GAZtE: Eraldaketa hezitzailetik eraldaketa soziala sustatzen duen proiektua

Gradu Amaierako Lana



EGILEA: CALDERON CALLEJAS, OIHANE

GRAL ZUZENDARIA: IMAZ BENGOETXEA, JOXI
Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila

DEIALDIA: 2014ko Ekainak 18

GRADU AMAIERAKO LANA

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| 1. LABURPENA | 3 |
| 2. SARRERA | 4 |
| 3. MARKO TEORIKOA | 7 |
| 3.1. Globalizazioa, kapitalismoa eta postmodernitatea..... | 7 |
| 3.2. Egungo hezkuntzaren analisia..... | 10 |
| 3.3. Eraldaketa hezitzailea eta eraldaketa soziala..... | 12 |
| 3.3.1. Eraldaketa Paulo Freireren begiradapetik..... | 13 |
| 3.3.2. Eraldaketa Michael Apple eta Henry Girouxen begiradapetik..... | 14 |
| 3.3.3. Eraldaketa sustatzeko pausoak eta ezaugarriak..... | 14 |
| 4. HIPOTESIAK ETA HELBURUAK | 18 |
| 5. METODOA | 19 |
| 5.1. Paradigma..... | 19 |
| 5.2. Diseinua..... | 19 |
| 5.3. Informazio bilketarako tresnak eta teknikak..... | 20 |
| 6. NONDIK DATOR IKD GAZtE? | 21 |
| 6.1. IKD ereduak..... | 21 |
| 6.1.1. IKD ereduaren iturburua..... | 21 |
| 6.1.2. IKD ereduaren oinarriak..... | 22 |
| 6.1.3. IKD ereduaren ardatzak..... | 23 |
| 7. IKD GAZtE | 25 |
| 7.1. Zer da IKD GAZtE?..... | 25 |
| 7.2. Proiektuaren ibilbidea..... | 26 |
| 7.2.1. 2011/2012 ikasturtea..... | 26 |

| | |
|--|-----------|
| 7.2.2. 2012/2013 ikasturtea..... | 30 |
| 7.2.2.1. Ekimen Sena bultzatzen duen Ikaskuntza Modulua..... | 31 |
| 7.2.2.2. Talde Sustatzailearen parte-hartzea..... | 35 |
| 7.2.3. 2013/2014 ikasturtea..... | 36 |
| 8. EMAITZAK..... | 39 |
| 9. ONDORIOAK..... | 44 |
| 10. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK..... | 48 |
| 11. BIBLIOGRAFIA..... | 50 |
| 12. ERANSKINAK..... | 53 |
| 12.1. Talde Sustatzaileko kideei egindako elkarrizketa..... | 53 |
| 12.2. Eragile sozialei egindako elkarrizketa..... | 53 |
| 12.3. Moduluan parte hartu duten ikasleei egindako elkarrizketa..... | 54 |
| 12.4. IKD GAZtEren material grafikoaren adibide batzuk..... | 54 |

1. LABURPENA

IKD GAZtE curriculumak garatzeko UPV/EHUko IKD (Ikaskuntza Kooperatiboa eta Dinamikoa) eredu formatiboaren barne garatzen den proiektu bat da, Talde Sustatzailea deitzen den unibertsitateko diziplina ezberdineko ikasleek autogestionatzen eta dinamizatzen dutena eta ikasleriari bideratzen zaiona. IKD GAZtEk 2011/2012 ikasturtean du jatorria eta bere helburua Gipuzkoako Kanpuseko ikasleriaren ahalduntzea, aktibazioa eta ekimen sena sustatzea da, azken batean ikasleria bere irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren protagonista bilakatzea. Urte horretan ikasleriaren egoeraren berri izateko asmoz, diagnostiko tailer eta sentsibilizazio kanpaina batzuk burutu ziren eta bertan parte-hartzaileengandik jasotako solasaldietatik ateratako ondorioak aztertu ostean, Ekimen Sena bultzatzen duen Ikaskuntza Modulua diseinatu, aplikatu eta ebaluatu zen 2012/2013 ikasturtean. Talde Mistoan egoeraren balorazioa egin ondoren, proiektuak daroan hirugarren urtean modulua birdiseinatu da eta aplikatu da. Hiru urteetako esperientzia ebaluatu ostean, IKD GAZtEk eraldaketa hezitzailearen alorretik eraldaketa soziala bultzatzearen bidean aurkitzen dela ondorioztatzen da.

Hitz gakoak: IKD GAZtE, ahalduntzea, autogestioa, ekimen sena, lankidetzak, interdiziplinarietatea, modulua, eraldaketa hezitzailea eta eraldaketa soziala.

2. SARRERA

“Pedagogia ikasi behar duzula? Hori zer da lo de los pies?”

Pedagogia ikasi behar nuela erabaki nuenean duela jada sei urte horrelako galderekin egiten nuen topo. Garai hartan eta karrera guztian zehar nire inguruko jendeak egiten zizkidaten galdera horiengatik, ohartu nintzen jendarte mailan gabezia bat zegoela heziketaren altzoan. Iruditzen zitzaidan horrek asko adierazten zuela jendarte bateko hezkuntza mailaz, eta are gehiago hezkuntza kontzeptuak berak testuinguru jakin batean zuen garrantziaz. Jakin dezatela pedagogoak ez garela ez podologoak, ez psikologoak ezta irakasleak ere.

Hein handi batean, arrazoi hori dela eta erabaki nuen Gizarte Hezkuntzako ikasketetan murgiltzea nire formazioa aberasteko, baina batez ere, inguru zehatz batetik jendartean eragiteko, gizarteko potentzialtasunaren bitartekari izateko eta kolektibotasunaren ikuspuntutik mundu justuago eta libre bat eraikitzeke. Nire helburua argia, herritarrak GH hizki larriak Gizarte Hezkuntzarekin lotzea Gran Hermanorekin lotu beharrean.

Zinez uste dut hezkuntzak ikaragarritzko boterea duela gizarte bat gidatzeko eta beraz, pertsonen izaeretan eragiteko. Ikusita azken urteotan etengabeko aldaketetan murgilduta gaudela eta gure balioak lehiakortasunaren eta indibidualismoaren bidean igeri egiten hasi direla, pentsatzen dut badela tenorea berdintasunean eta askatasunean oinarritutako jendarte bat eraikitzeke. Bizitzen ari garen krisiaren eraginez, badirudi arazoak biderkatu egiten direla, baina nik gizarte hezitzaileok barruan daukagun potentzialtasuna ateratzeko aukera gisara bizitzen dut eta bizi nahi dut garai hau, ezer gutxirako balio baitu tragikomediaren tankera duen antzezlanaren etxeko egongelatik begiratzeak.

Gizarte hezitzaileok itsaso zabaleko antzezlan horretan jokatu beharreko papera ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Gure eginbeharra azken batean inklusioari bidea zabaltzea da, pertsonen indar-guneak potentziaztea, aniztasunaren alde positiboa argitaratzea eta berdintasunaren alde borrokatzea. Integraziotik urrun, inklusioak ulerkuntza ekintzarengatik aldatzen du, arazoa eraldaketa prozesu bihurtzen du, aniztasuna onartzen du, guztion interesak gainjartzen ditu, parte-hartzeko aukera eta baliabideak bermatzen ditu, justizia soziala eta kohesioa bultzatzen ditu eta Giza Eskubide Unibertsalak duintasunez defendatzen ditu. Azken batean, gizarte hezitzaileak begia puntu ahuletan jarri beharrean aukeretan nahiz aberasgarritasunean jarri behar du eta pertsona gizartera egokitu arazi baino gehiago, denontzako gizarte bat eraikitzea lortu behar du, denen beharrak erantzuten dituen eraldaketak sustatuz jendartean.

Nire aburuz, arestian aipatutako guzti hori lortzeko bide bakarra hezitzaileok iratzargailu paperean murgiltzea da. Iratzargailu bilakatuz gero, jendearen gaitasunak

eta trebetasunak esnatzeko ardura izango dugu eta horretarako, XXI. mendeko erronkekin bat egiten duten bide eta baliabideak erabili beharko ditugu.

Trebetasun horiek loratzeko, beharrezkoa iruditzen zait ikaskuntza prozesu aktiboak martxan jartzea. Burutu ditudan bi karreretan zehar, nire inguruko esperientzia aztertutik, ikusi dut gazteak eta zehazki esanda unibertsitateko ikasleak unibertsitatea urrun sentitzen dutela eta beraz, ez direla behar beste inplikatzeko unibertsitateko bizimoduan. Hau da, ikasleriaren kezka nagusia ikasgaiak gaintzearekin lotuta egotearen sentsazioa daukat, titulu hutsal bat lortzeko xedea dutela eta ez ordea, ikaskuntza prozesu aberats eta oparo batez hornitzea. Haurrak eta gazteak etorkizuneko mezulari izango direnez, sistemaren gatibu izatetik gizabanako aske izatera eta haien ametsak egi bihurtzea, existentziarako ezinbesteko osagaiak iruditzen zaizkit. Hortaz, gazte pasiboak, alferrak, pasotak, konformistak eta aspergarriak izatetik, gazte iraultzaileak, ekintzaileak, parte-hartzaileak, kritikoak, dibertigarriak, sortzaileak eta aktiboak izaterako urratsa burujabetasunari tinko eusteko bide bakarra dela pentsatzen dut. Izan ere, niretzat Stephane Hesselek 93 urterekin idatzitako Haserretu zaitezte! (Hessel, 2010) liburuan aipatzen duen bezala, gizakiok har dezakegun jarrerarik makurrena axolagabekeriarena da eta hori ez gertatzeko, gure geroa izango direnengan konpromisoaren bitartez haserre hori piztea da erronka. Haserrearen zergati edo arrazoiak topatzeko, hau da ikusteko, poliki begiratu behar dela helaraztea ere garrantzitsua deritzot. Hesselek dioen moduan, gazteei jakinarazi behar dieguna zera da: erresistitza sortzea dela eta sortzea erresistitza dela.

Pentsamendu hori buruan bueltaka nuela, iazko ikasturtean, 2012-2013 kurtsoan, IKD GAZtE proiektuan murgildu nintzen, praktika bolondresak egiteko gonbitea luzatzen zuen posta elektronikoki bati esker. Bertan Gipuzkoako Kanpuseko diziplina ezberdineko bost ikaslerekin egin nuen topo, metodologia aktibo, kooperatibo eta dinamikoaren bidez era autogestionatu batean ikasleen ahalduntzearen alde eta IKD eredu formatiboa praktikoki aplikatzeko lan egiten zuten bost ikasleekin.

IKD GAZtEk ikasleria ikaskuntza prozesuaren protagonista izatea posible egiten du eta horrez gain, ikasleria horren ekimen sena eta ekintzailetasuna potentziatzen du, lankidetzaren harremanak mantenduz unibertsitateko komunitatea osatzen duten eragileekin nahiz zuzeneko harremana mantenduz testuinguru errealarekin eta interdiziplinarietatea aintzat hartuz talde lanean lan egiteko tresnak eskainiz.

IKD GAZtE hezkuntzarekin dudaren kezka eta konpromisoa asetzeko bide bezala ulertzen eta bizitzen dut. IKD GAZtE eraldaketa hezitzailetik eraldaketa edo behintzat aldaketa soziala eragiten duen proiektu bat dela pentsatzen dut.

Gradua amaitzeko azken txanpa aurkitzen garen honetan, tutore baten gidaritzapean garatu beharreko proiektu, memoria edo azterlan bat egin behar nuela ohartu nintzenean, ez nuen inolako zalantzarik egin gaia hautatzeko garaian. Aukeratu nuen gai orokorra “Hezkuntza eta eraldaketa soziala” izan zen. Nire ikasketa aldian

zehir ikasitako gaiak nire esperientzia pertsonal eta trebetasunekin ehuntzeko aukera ikusi nuen eta arrazoi hori dela eta, nire Gradu Amaierako Lana IKD GAZtEri buruzkoa izatea otu zitzaidan eta beraz, proiektu horri eskaintzea nire ikasle rolaren agurra.

Hortaz, ondorengo dokumentuan IKD GAZtE eraldaketa hezitzailetik eraldaketa soziala sustatzen duenaren zergatiak aurki daitezke. Lehenik eta behin, egungo munduari buruzko sintesi soziologiko bat egiten da eta eraldaketa sozialaren kontzeptua definitzen da. Ostean, IKD GAZtE proiektuaren planteamendu teorikoaren eta diseinuaren inguruko informazioa biltzen da eta bere lan ildoak zuzentzen duten ikuspegi, paradigma, helburu eta ezaugarriak deskribatzen dira. Aldi berean, hastapeneko hiru urteotan proiektua nola garatu den eta lerro teoriko horiek praktikara nola eraman diren adierazten da. Jarraian, IKD GAZtE eremu hezitzailean eraldaketa eragitearen ondorioz eraldaketa soziala sustatzen duen proiektu bat denaren hipotesitik abiatuta, eraldaketa hori eragiten eta potentziatzen duten aldagaiak eta elementuak identifikatzen eta aztertzen dira, aurretik sortutako eraldaketa sozialaren marko teorikoa aintzat harturik. Aldagaiak antzeman ostean, ondorio orokorrak eta hobekuntza proposamenak ageri dira, kontutuan harturik inguru sozial eta lurraldekoarekin erlazionatzen den unibertsitatea.

Proiektua aurrera eramateko, eremu hezitzaileko eraldaketari erreferentzia egiten dioten bi esplorazio ardatz planteatzen dira, eraldaketa sozialaren gidari izan daitezkeenak:

- Rolen eraldaketa eta irakasle-ikasle erlazioa ikaskuntza prozesuan.
- Unibertsitatearen inplikazioa handiagoa bere testuinguru hurbilean parte-hartze izaera duten ikaskuntza proiektuak eginez.

Proiektua aurrera eramateko, hiru lan fase orokorretan banatutako metodologia eraman da aurrera:

- 1) Dokumentu idatzien analisia diseinuaren eta marko teorikoaren inguruan. Iturriak: Proiektuak, komunikazioak, posterrak, web orria, ikus-entzunezko materiala... (Bigarren mailako iturria)
- 2) Analisi deskribatzailea, IKD GAZtE nola garatzen den azaltzen duten ebaluazio txostenen bitartez eta eragile sozialei, Talde Sustatzaileko kideei eta ikasleei, besteak beste, elkarrizketa eginez. (Lehen mailako iturria)
- 3) Eraldaketa soziala - IKD GAZtE erlazioa aztertu eta hobekuntza proposamenak sortu, eremu hezitzailetik eratorritako eraldaketak alor sozialean eragindako eraldaketa analizatzen duen ikuspegipean.

3. MARKO TEORIKOA

Marko teorikoari ekiteko, lehenik eta behin, gaur egungo munduaren egoeraren berri ematen dut, eraldaketa sozialaren kontzeptua ulertzeko gakoak diren kontzeptuak landuz. Ostean, egungo hezkuntzaren egoerari buruzko sintesi bat egiten dut, hezkuntzak gizartearen beharrei erantzuten ote dion ala ez hausnartzeko helburuarekin eta bukatzeko, eraldaketa hezitzailea eta eraldaketa soziala ulertzeko modua mugatzen dut, hurrengo puntuetan IKD GAZtEk eraldaketa soziala sustatzen duen proiektutzat uler daitekeen ala ez ikertzeko.

3.1. Globalizazioa, kapitalismoa eta postmodernitatea

Gauza jakina da bizi dugun mundializazio eta globalizazioaren eraginez jendarteak azken urteotan aldaketa ugari jasan dituela eta etengabeko eraldaketan murgilduta dagoela. Urte gutxiren buruan gizarte tradizionaletik gizarte postindustrial-postmoderno izatera iritsi da mundua, ama lurra erraldoi izatetik txiki izatera multinazionalak eta zenbait ponentziek gidatutako merkatu global eta libre dela eta. Zygmunt Baumanen (2005) arabera, postmodernitateak aldaketa eta iragankortasuna irudikatzen duen jendarteari egiten dio erreferentzia, baita erregulazio ezaren eta merkatuen liberalismoaren irudiari ere eta hori XX. mendetik aurrera maila lokaletik mundu mailara salto egin delako gertatzen dela dio. Aditu honen ustez, kideen arteko ardurak airean geratzen dira komunitate beraren kontzeptua galtzen ari delako eta zuzeneko harremanak indarra galtzen ari direlako etengabe aldatzen ari den gizarte zalantzazkoaren olatuaren barnean. Baumanen (2005) iritziz, horrek guztiak ongizate estatuaren dekadentzia ekartzen du, gehiegizko askatasun horren eraginez ziurgabetasun eta beldur handiak eraikitzen direlako iraganean lortutako merituen aurrean eta gainera, etorkizuna zalantzarekin lotzen delako.

Globalizazioa lan merkatuaren berregituratzea eragin zuen iraultza zientifiko-tekniko batez bitartez ematen da. Globalizazioak gauza positibo batzuk ekarri badituzte ere, balantzaren orekak ondorio kaltegarriak onuragarriak baino askoz ere ugariagoak direla adierazten du. Mundializazioa dela eta, bizimoduak homogeneizatzen ari dira, kultura eta hizkuntza gutxitu ugari desagertzen ari dira edo desagertzeko arriskuan daude, hegemonia ekonomikoa lortzeko borrokek geroz eta ugariagoak dira, herrialde aberatsek herrialde txiroak arpilatzen dituzte, ustelkeria eta errentagarritasun ekonomikoarekiko obsesioa inolako kezka moralik gabe gauzatzen dira eta herritarrak kontsumo-eragile sozial soiltzat hartzen dira, besteak beste. Kontsumoan oinarrituriko multikulturalismo bat dago eta jendarteak kontsumismoaren erritmoarekin dantza egiten du, mundua uniforme bilakatuz eta aldi berean paradoxikoki ezberdintasun sozialak areagotuz (Aramendi, 2012).

Aldaketa horien zergatiak bilatzerako garaian hiru dira burura etortzen diren ezaugarriak; batetik IKTak, bestetik ideiak eta azkenik ekonomia, desberdintasunak eta gatazkak.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia bizi sozialan eragin handia izaten ari dira eta baliabide hauek dira hain zuzen aldaketa soziala eragiten duten arrazoi nagusiak. IKTak erlazionatzeko, lan egiteko eta bidaiatzeko joerak aldatu dituzte eta horrek aldi berean, munduko ekonomian eta aldi berean aldaketa sozialaren erritmoan eragiten du. Horrela, bada, IKT-en iraultza gertatzen ari den herrialde garatuetan lanbide espezializatuagoak egon ohi dira eta bertako biztanleen artean askoz ere aniztasun handiagoa dago jokabide, aukera eta bizitza modu ezberdinei dagokionean. Herrialde azpigaratuetan, ordea, komunitatean ematen diren aldaketak oso motel suertatzen dira. Manuel Castellsen (1997) arabera, garatzen ari diren komunitate birtualak edo sare bidezko gizarteak erlazio sozialak berregituratu dituzte eta antolaketa handia izan arren, sarean ematen den indibidualismorako joera nabarmena dela adierazten du eta gainera, egitura soziala dominatzerara igaro dela. Komunikazioa komunitate fisikoetan eman beharrean komunitate birtualetan garatzen da eta interes, kidesun eta balio indibidualen araberrako sareak eraikitzen dira. Castellsek (1997) ondorioztatzen du Internet baliagarria dela harreman ahuletarako, baina ez, ordea, erlazio indartsuetarako.

Gainera, IKTak estatu totalitarioaren arma garrantzitsu bilakatzen dira, jendarteko gizabanakoak eta haien pentsamenduak kontrolpean izateko eta azken batean IKTak gobernuaren tresna manipulatzailer bilakatuz. Horixe da Chomskyk eta Ramonetek (1995) adierazten dutena “Cómo nos venden la moto” testuan alegia. Hauen ustez, gobernuko eliteek ustezko interes komun eta orokorrak pentsatzen eta planifikatzen dituzte, artaldeari ekintzan parte-hartzeko aukerarik ez utziz eta artaldeari berari propagandaren bitartez desio ez duen zerbaiten baieztapena ematera behartuz. Horrela adierazten da testuan: “Conducir a las masas estúpidas hacia un mundo en el que van a ser incapaces de comprender nada por sí mismas”. Eta hori lortzeko erabiltzen duten estrategia argia da, alegia, herritarrak gizabanako indibidual bezala artatzea, kolektibo bezala tratatuz gero, mezu horien aurka egiteko taldeak sortzeko arriskua ikusten dutelako. Gobernuak sare horiek ez sortzeko eta kritikotasuna ez lantzeko jendea oharkabetzen dute garrantzitsuak ez diren gaiekin. Horrez gain, erabiltzen den ohiko beste estrategia bat terrorea sortzearena da, sumisioa eragiten duen eta gerrak justifikatzera bideratzen duen etorkizunari buruzko terrore hipotetikoa sortzearena.

Aldaketa soziala sustatzen duen beste faktore garrantzitsu bat ideiek osatzen dute, bereziki erlijio ideiek Max Weberrek (2009) adierazten duen moduan. Autore honen arabera, erlijio ideiak ekintza ekonomikoan, estratifikazio sozialan eta gizartearen garapenean eragiten dute eta bere ustetan, erlijioak izan duen eragin hori oso nabaria da mendebaldeko gizarteko ezaugarrien iraupen eta bizitza estiloan.

Eta azkenik, aldaketa sustatzen duten beste faktore batzuk ekonomia, desberdintasunak eta gatazkak osatzen dute. Karl Marxek (1978) dioenaren arabera, gizarte bateko faktorerik garrantzitsuenak ekonomia da, hau da, biziraun ahal izateko behar dituen ondasunak eta zerbitzuak nola ekoizten dituen, prozesu horretan sortzen diren desberdintasunak eta desberdintasun horien harira sortzen diren gatazkak. Puntu honetan, multinazionalak lurralde garatuak erabiltzen dituzten lehengaiak lortzeko, eskulan merkeaz baliatzen dira eta etekin handiak ateratzen dituzte, herrialde azpigaratuetakoko garapena oztopatuz eta munduaren desoreka areagotuz. Aldi berean, alienazioa gertatzen da, lan eta gizarte moderno-industrialaren ondorioz gertatzen den zentzu eta motibazio galtzea alegia eta beraz, jendearen bizi baldintzak okerrera egitea. Marxek (1978) adierazten duenez, lantegi industrial modernoetan langileek ez dute ekoizpenaren inguruko inolako kontrolik, ez da sormena potentziatzen eta horrek deshumanizazioa dakar neurri handi batean.

Globalizazioaren aurkako mugimendu den Altermundialistaren (Diaz Moreno 2012) arabera, globalizazioa gaur egungo sistema kapitalista basatiaren zabalkundea da. Kapitalismoak ekonomia gizakiaren gainean jartzen duela diote eta beraz, globalizazioaren ondorioz ez direla konpontzen aberatsen eta txiroen arteko aldeak. Aldi berean, aipatzen dute globalizazioak ezberdintasun sozialak orekatzetik urrun, areagotu egin dituela eta ekologikoki jasagarria ez den gizarte bat eraikitzen duela, horrek etorkizun hurbil batean eragingo dituen ondorioekin batera.

Sistema kapitalistak liberalismo ekonomikoaren sortzaile izan zen Adam Smith (2012) dauka oinarria eta bertan, lehenetsun osoa merkatuaren funtzionamenduari ematen zaio, bere ustez biztanle bakoitza bere interesen aldeko epailerik onena delako. Beraz, ezinbestean, ondasun komunaren alde egiteko, askatasunak edo *Laissez-faire* (Egiten utzi) kontzeptuak agindu behar duela aipatzen du, nor bere interesaren alde egiten duen heinean taldearen ongizatea garatzen laguntzen duelako. Horregatik, bere aburuz, estatuaren esku-hartzeak ez du ordena naturala bortxatu behar eta estatuaren papera esku ikusezina txertatzera mugatuko litzateke, merkatuari utziz ekoizti behar denaren erabakia. (Mochón, 1995). Esku ikusezinak lehiakortasunaren garapena dakar eta hori gainera, indibidualista den lehiaketa batera eramaten ditu gizabanakoak. Hezkuntzari orokorrean eta espezifikoki eskolari erreparatuz gero, ikuspegi honek geroz eta hezkuntza gehiago jaso orduan eta postu sozial altuagoaren jabe egiteko aukera dagoela adierazten, kapitalismo kredentzialistari erreferentzia eginez (Fermoso, 1997).

Esan bezala, globalizazioak bere alde on eta txarrak dituenez, puntu hau David Held (2003) adituaren hitzekin amaitzea gustatuko litzaidake. Aditu honek aipatzen du globalizazioak pertsona askoren bizitza esperientzia eraldatu duela eta denbora askoan zehar, ekimen hori zorigaitzat jo izan da, gizakiok esku-hartzeko aukerarik egongo ez balitz bezala. Globalizazioaren alde ageri direnak globalizazioa zorientasunaren eta aberastasunaren isla dela diote eta aurka daudenak, ordea, globalizazioa gaitz guzien sorburu dela adierazten dute. Held (2003) bi korrante hauen kontra jartzen da, bi korranteen arteko alde positiboak indartu nahirik eta negatiboak baztertzeko

mekanismoak ipiniz, bere iritziz gizabanako garen heinetik ekiteko aukerak eskuragai ditugulako. Aldi berean, esaten du beharrezkoa den aldaketa nahi politikoaren iturritik eman behar dela.

3.2. Egungo hezkuntzaren analisia

Aurreko puntuan egindako munduaren analisia burutu ondoren, argi dagoena globalizazioak hezkuntzan eragiten duela eta hezkuntza sisteman egiten diren erreformak ugariak direla da.

PISA edo Ikasleen Ebaluaziorako Programa Internazionala, munduko 61 estatuko 15 urteko ikasleriaren errendimendua hiru urtetik behin egiten den frogan analisisan oinarritzen da eta bere helburu nagusia ikasleriaren balioespen internazionala egitea da. Txosten hau OCDE edo Ekonomi Lankidetzeta eta Garapeneko Erakundeak burutzen du eta ulermen konpetentzia, konpetentzia matematikoa eta natur zientziekiko konpetentzia neurtzen ditu. Eskola programa nazionalak ebaluatu ordez, ongizate pertsonal, sozial eta ekonomikorako esanguratsuak diren ezagutza, gaitasunak eta konpetentziak aztertzen ditu, egoera errealean ematen diren arazoek ebazpenak egitea proposatzen baita bertan. Beraz, estatu bakoitzeko egoeraren deskribapena egiteaz gain, sistemaren hobekuntza sustatzeko xede ere badu. Baina irizpide horien arabera estatuetakiko ikasleriaren eskola porrota ere neurtzen da. Euskal Herriari erreparatu gero, eskola porrota PISAko emaitzen batzuetatik gora ageri da nabarmen, eskola porrota %17an kokatzen delako, baina espainiar estatuaren kasuan, %33ko eskola porrota dago (Vilches Peña eta Gil Pérez, 2010).

Vilches Peña eta Gil Pérez (2010) adituek diotenaren arabera, eskola porrota gaitzetzeko bidea ikasleriaren interesa piztea eta sustatzeko ikaskuntza praktika egoki eta eraginkorrak erabiltzea da. Beraien ustez, espainiar estatuan erabiltzen diren ebaluazio sistema zaharkitua dago, ebaluazio sumatiboa erabiltzen duen formatiboa erabili ordez eta ikasleriaren konpetentzietan zentratu beharrean gaitasunetan jartzen duen azentua. Hauen ustez, ikasleriaren emaitzak positiboki ala negatiboki baloratu ordez, lortu nahi diren helburu horiek lortzeko egin beharrezkoa laguntza eskaintzea da. Horrek irakasleriaren rol aldaketa bat suposatzen du, ikasleriaren bitartekari eta orientabide izatera iritsiz eta ikasleen prozesua etengabeko berrelikapenaren bitartez bideratuz. Beraz, ikasleriaren ikaskuntza teknika memoristikotik, errepikakorretan edo mekanikotik oinarritu beharrean, ikerkuntzan eta ezagutzen eraikitzean oinarritzea da gakoa.

López Muñoz (2004) adituak aipatzen duenaren arabera, egungo hezkuntza sistemak ez ditu ikasleen interesak eta desioak kontutan hartzen formazioari dagokionean eta horrek motibazio eza eragiten du. Bere ustez, ikasleria hezkuntza munduan murgiltzen denean ez da *tabula rasa* bat eta ikasle bakoitza autokontzeptu jakin batekin heltzen da. Hortaz, irakasleriaren lana lehenik eta behin, ikasleriaren

autokontzeptu positiboan eragitea da eta motibazioak gora egiten duenean ikaskuntza askoz ere oparoagoa izango da. Puntu honetan, Mertonek (1948) proposatzen duen Pigmalion efektua edo betetzen den iragarpena aplikatzea beharrezkoa da, ikasleen gaitasunetan sinetsiz eta horrela beraien portaeran eraginez. Lopez Muñozen (2004) iritziz, motibazioa eta ikaskuntza esanguratsua, ikasleen autonomia eta talde lana bultzatuz potentziatu daiteke eta horretan irakasleek erabiltzen dituzten teknikak eta sormen bidezko dinamikak laguntzen dute.

Espainiako hezkuntza sistemaren historia hurbilari erreparatuz gero, bipartidismoan oinarritutako erreformak ugariak izan dira. Oraindik orain, PSOEk 2006an ezarritako LOE legea (BOE, 2006) dago indarrean. Lege honek, beste hainbat helburuen artean, ondorengo xedeak aipatzen ditu: ikasleen nortasunaren eta gaitasunen garapena; ikasleria bere ikaskuntza prozesuaren protagonista izatea eta horretarako sormena, ekimen sena eta izpiritu ekintzailea eraikitzea; ekintza profesionalerako hezitzea; eta alor ekonomikoan, sozialean eta kulturean parte-hartze aktiboa sustatzea, jarrera kritikoa eta arduratsua bultzatzen den bitartean. LOEk teoriarik ikasleen arrakasta komunitate osoarena dela adierazten du eta ikaslea ikaskuntzaren erdigune dela.

Egun, ordea, PPK LOMCE legea (BOE, 2013) onartu berri du eta guztiz ezberdina den hezkuntza sistema baterako joera argitara geratzen da. Andrés Rubiaren (2013) arabera, LOMCE legearen bitartez, bira kontserbadore bat ematen zaio hezkuntza sistemari, ezberdintasun sozialekin, sexu nahiz estatus sozialaren segregazioarekin, meritokrazia indibidualistan oinarritzen den elitismoarekin bat egiten duen eta interes ekonomikoetan oinarritzen den eredu baten aurrean kokatzen garelako. Soziologo honen arabera, LOMCE legeak lankidetzaren lehiarengatik eta publiko pribatuagatik aldatzen du eta horrek berdintasun irizpidea bortxatzen du. Aldi berean, teoriarik laikoak den estatu batean erlijio katolikoak pisu handia eskuratzen duela aipatzen du, gizarte demokratikoak eskatzen duen balioak alboratuz. Autore honek ateratzen duen ondorio nagusia Ministeritzak hezkuntza sistema zentralizatzearen eraginez autonomiak eta parte-hartzeak behera egiten duela, irakaskuntza lehian eta lan merkatuan oinarritzen dela, ezberdintasunak muturreko egoeretara joaten direla eta eredu tradizionalaren aldeko apustua egiten duela da. Irakaskuntzaren ideiarik erreparatuz, errepikapenaren eta teknika memoristikoen alde egiten da eta irakasleriaren papera transmisioan oinarritzen da. Horrek adierazten du ikasle-irakasle arteko erlazio hierarkiko edo bertikala gainjartzen dela eta jada ikaslea ez dela bere ikaskuntza prozesuaren protagonista (Andrés Rubia, 2013).

Kontserbadorea den lege berri hau, hain arrakastatsua den Finlandiako ereduaren beste muturrean aurkitzen da Vega Gil (2005) adituaren arabera, Finlandiako ereduak babes eta gastu sozialen aldeko apustua egiten duelako. Datu bat aipatzearen, Finlandian urtean bataz beste haur batek 608 ordu igarotzen baditu eskolan, Espainiako haur batek 875 urte igarotzen ditu. Horrek sistema bakoitzaren eraginkortasuna irudikatzen du. Finlandiako hezkuntzari dagokionean, derrigorrezko eskolaratzea zazpi urtetik 16 urte bitartekoa da, presentzia hautazkoa da eta doako izaera publikoa dauka.

Bertan ez dira azterketak egiten 12 urtera arte eta ikasleek ez dute kurtsorik errepikatzen. Irakasleak ikaskuntza dialogikoaren ereduak erabiltzen ditu eta metodologia aktiboak erabiltzen dituzte klaseak emateko garaian. Eredu honetan ikasleak bere irakaskuntza prozesuaren protagonista bilakatzen dira eta sortzeko, eraldatzeko, ikertzeko eta aurkitzeko ekintza praktiko, aktibo, dinamiko eta eraldatzaileak sustatzen dira elkarrekintzaren eta lan komunitarioaren bitartez. Irakaslearen papera ez da edukien transmisore izatea, ikaskuntzaren gidari eta laguntzaile izatea baizik, ikasleriaren kompetentziak eta gaitasunak argitaratzen laguntzaile alegia. Kompetentziak gaitasunen aurretik garatzen dituzte, garrantzi berezia emanik irakurmenari. Gehien potentziatzen duten alderdia ikasten ikasi gaitasuna da, Finlandiako ereduaren arabera soilik horrela delako posible ikaskuntza ematea (Vega Gil, 2005).

Eguno hezkuntzaren inguruko analisia burutu ondoren, argi dagoena ikasleriaren arrakasta lortzeko eta hortaz, baita gizartearen arrakasta lortzeko ere, munduko eta jendarteko erronkei aurre egiteko baliagarriak diren ereduak aplikatzea oso garrantzitsua dela da. Etengabeko aldaketetan murgilduta dagoen jendarteari aurre egiteko, eraldaketa sozialak egitea funtsezkoa da eta hori lortzeko, hezkuntzaren eraldaketaz baliatu beharko gara, hezkuntza ereduak gure izana eta etorkizuna baldintzatuko duelako. IKD GAZtEk ikasleriaren ahalduntzean eragin nahi du unibertsitate mailako eraldaketa hezitzaile bat aplikatuzetik eta eraldaketa hezitzaile horretatik eraldaketa soziala sustatu nahi du.

3.3. Eraldaketa hezitzailea eta eraldaketa soziala

Arestian esan bezala, IKD GAZtE eraldaketa hezitzailetik eraldaketa soziala sustatu nahi duen proiektua da. Baina horren esanahia ulertu ahal izateko, beharrezkoa da eraldaketa hezitzailea eta eraldaketa soziala kontzeptuak argitzea eta nire definizio propio bat sortzea, ondoren IKD GAZtEk ze puntutaraino lortzen duen eraldaketa soziala neurtu ahal izateko.

Eraldaketak egoera bat aldatzeko zuzeneko edo zeharkako ekintza irudikatzen du, egoera batetik bestera igarotzeko akzioa hain zuzen ere. Egun etenik gabeko aldaketa prozesu batean bizi gara, inguratzen gaituen errealitatearen aldaketa prozesu batean, baina heziketaren zioa aldaketa baino haratago doanez, hobekuntzak lortzeko eraldaketak martxan jarri behar ditu ezinbestean, aldeztu aurretiko diagnostiko bat egin ondoren, abiapuntua aldatzeko helburuak dituen plan, programa edo proiektu baten bitartez. Baina eraldaketa sustatzeko pertsonen inplikazioa lortu behar da, subjektu haiengan eta haien jarreretan zuzenean eraginez eta jendarteko behar, eskari eta erronkekin bat egin behar du (Foroni, 2011).

3.3.1. Eraldaketa Paulo Freireren begiradapetik

Paulo Freireren (1969) pedagogiaren ardatza eraldaketa sozialean oinarritzen da hain zuzen, eta ez ordea, ordura arte bezala, egokitzapenean. Freire isiltasun edo gerizpean zeuden pertsona eta kulturez arduratzen hasi zen eta bertan “Zapalduen Pedagogia” (Freire, 1970) garatuz ikaskuntza dialogikoa eraman zuen praktikara eta bitarteko bezala alfabetatzea erabili zuen. Eraldaketa sozialtzat har daiteken ekimen hori heziketa popularraren bitartez gauzatu zen, herritarrei zuzendutako esperientzia osatu baitzuen. Freireren (1969) pentsamendua eta hezkuntza-ekintza, heziketa askatasunaren praktika dela onartzean hasten da, gizaki bukatugabearen ideia buruan harturik. Bere iritziz, gizakiok gure testuingurua daukagu eta bertan sozializatzear gain, berau aldatzen saiatu beharra daukagu. Pedagogo honentzat ikastea eraikitzea, berreraikitzea, aldatzeko egiaztatzea da. Horregatik, hezkuntza prozesua ezin da egokitzapen hutsera mugatu, bere hastapenetan eraldatzearen ideiak egon behar du, askatasunaren prozesu batean murgilduz. Ildo horretatik jarraituz, hezkuntzaren arazoa ez dela soilik egiteko pedagogikoa aipatzen du, politikoa ere badela. Eta aldi berean, “Autonomiaren Pedagogia” (Freire, 1997) lanean azaleratzen duen ezagutza kritikoaaren praxi politikoa eta kulturalaren egitekoak errealitatearen eraldaketa ekartzen duela adierazten du.

Freireren (1969) aburuz, hezkuntza mailako eraldatzeko prozesu horretan murgiltzerako orduan eman beharreko lehenengo urratsa errealitatea ezagutzearena da. Ezagutza kritikoa, ezagutza askeagoa eta demokratikoagoa azpimarratzen du. Bere aburuz, gizakiak bere munduaz kontziente izan behar du, eta bere kontzientzia ekintza-hausnarketak prozesuaren barnean egon behar du, kontzientziazio horrek ahalbidetuko duelako eraldaketa. Hezkuntzaren dialektika horrek praktika zehatz batzuk gainditzea eta berri batzuk birsortzea suposatzen du, hau da, irakaskuntza prozesu berri bat ezartzea, eta hori, autonomia pixkanaka barneratzen ari den erantzukizunean oinarritzen da. Ikuspegi horrek hiru printzipio nagusi barne hartzen ditu: 1) Irakastea ez da ezagutzak transferitzea; 2) Ez dago irakaskuntzarik diszentziarik gabe; 3) Irakastea giza-berezitasun bat da. Hortaz, pedagogo honen arabera, irakastea ez da ezagutza jakite hutsa, hura sortzeko edo errealitatea eraikitzeko ahaltasunak sortzen jakitea baizik, edukiak eraikitzea alegia, baina horretarako, hezkuntza komunitate guztiak parte hartu behar duela aipatzen du, edukiak taldean eraikitzen direlako. Hezkuntza komunitate horretan irakaslea bitartekoa da ekintza kurrikularraren garapenean. Horrek irakasle-ikasle erlazioan harreman horizontala utziko du agerian. Horregatik, eraikitze prozesu hori garrantzizkoa da, irakasle eta ikasleak elkarrekin ikasi, irakatsi, kezkatu, ekoiztu eta elkarrekin aurre egin behar baitie eragozpeni.

Freirek (1969) eraikitze prozesu horretan metodo dialogikoa garatzen du. Dialogo hori ez da eguneroko edo ohiko elkarrizketa hutsetan gauzatzen, taldean buruturiko gogoeta-ekintza batean baizik. Horregatik dio Freirek (1969) ikasle eta irakasleen jarrera dialogikoa, irekia, jakinguratsua, ikertzailea eta aktiboa izan behar

dela. Zorroztasun metodiko horrek edukiaren tratamendua luzatu eta kritikoki ikastea ahalbidetzen duten baldintzak ekoizten ditu.

Hortaz, Freireren (1969) pedagogiaren helburu nagusia errealitatearen eraldaketa da, testuinguruaren irakurketa kontzientziadunaren bitartez.

3.3.2. Eraldaketa Michael Apple eta Henry Girouxen begiradapetik

Michael Apple (1987) eta Henry Girouxek (1983) Paulo Freireren (1969) pedagogia kritiko eta humanistaren eragina jasan zuten. Autore hauen arabera, gizartean eta hezkuntzan botere harremanak izana arren, badago erresistentzia eta aldaketarako aukera.

Michael Applek (1987) curriculumak, ideologia eta boterearen arteko azterlana aztertu ostean talde sozial batzuen hegemonia berregiten dela adierazi zuen, baina aldi berean eta erreproduzio teorietatik aldenduaz, klase, genero edo etnia ezberdintasunen aurka borrokatzen diren partetik aldaketarako aukera ikusten du, modu honetan hezkuntza eta gizarte demokratiko bat lortuaz.

Horrez gain, Applek (1987) curriculumak eta eskola nola demokratizatu aztertu duenean, elkarrizketak eta parte-hartzeak duen garrantzia adierazi izan du. Beraz, eraldaketa sustatzeko “goitik” ezarritako curriculum bat ezarri beharrean, ikasleek, familiarek, irakasleek eta orokorrean komunitateak eskolan zuzenean parte-hartzen duten ereduak nabarmendu behar du, ezagutza soziala elkarrekin eraikiz balio eta interesen arabera. Eskolako edukiak horrela harreman handiagoa daukate eragileen eguneroko bizitzarekin eta ikasleen rol pasiboa aktibo bihurtzen da, gizartean modu kritikoan parte-hartzen ikasiaz eta hortaz, eraldaketa soziala sustatzeko bidean murgilduaz.

Bestetik, Henry Girouxek (1983) antzeko ildo bat jarraitzen du, irakaslea intelektual eraldatzaile bezala definituaz eta hezkuntza nahiz kultura benetako demokraziaren eta berdintasunaren aldeko proiektu politiko zabalago baten barnean kokatuaz. Proiektu horrek kritikoki hausnartzen eta gizartearen eraldaketarako aktiboki bititzen erakusten dute aditu honen arabera eta beraz, ikasleei euren kulturako elementu positiboak eta euren ahots propioak mantentzeko eta sendotzeko aukera ematen dute.

3.3.3. Eraldaketa sustatzeko pausoak eta ezaugarriak

Marko teorikoa zehar deskribatu dudana eta bizi dugun egungo egoeraren azterketa burutu ondoren, garrantzitsua da zehaztea laburki egungo jendarteko errokei aurre egiteko ze pausu jarraitu behar diren eta ze ezaugarri hartu behar diren buruan

ondoren eraldaketa soziala bultzatzeko. Puntu hau garatzeko “Gizarte eta Kultura Dinamizazioa” (Huegun, 2012/2013 ikasturtea) ikasgaiko edukia hartuko dut erreferentziatzat.

Eraldaketak alternatiboa izan behar du izan, hau da, dagoen egoera aldatzeko bide berritzaile bat eskaini behar du eta aldi berean, egoeraren hobekuntza sustatu beharko du. Bestetik, eraldaketa talde edo kolektiboen aldatzeko nahitik sortzen denez, komunitatearen zentzua garatzea beharrezkoa da. Identitate hori erabakitzeak eskubidea dagoenaren kontzientzia hartzearekin garatzen da.

Aldaketak eragitea eskatzen duenez, berau gauzatzeko lehenik eta behin xede eta helburu orokor zein espezifikoko batzuk planteatu beharko dira, eraldaketaren norabidea eta izatea finkatzen laguntzeko hain zuen. Eraldaketa hori pauso txikiak proposatuz jarri beharko da martxan eta urrats horiek errealistak eta bideragarriak beharko dute izan. Bestetik, ezinbestekoa izango da epe motzeko, ertaineko eta luzeko xedeak ezberdintzea eta bakoitzaren arabera ekintza lerro edo zutarriak zehaztea, hauek praktikara eramanez ahal izateko. Horregatik, oso garrantzitsua da bizi dugun eta ditugun erronken inguruko azterketa sakona gauzatzea. Ekintza lerroak abian jartzeko jendearen inplikazioa piztu beharko da eta hori soilik posible izango da indibidualtasunetik kolektiborako kontzientziario eta sare lana burutzen bada, hau da, interes orokorrak partikularren gainetik ipintzen badira. Horretarako, ideiak partekatzen lagunduko duten elkar-jartze enpatikoak emateko espazioak sortu beharko dira, puntu komunak identifikatuz eta adostasun prozesu baten bitartez batasuna eraikiz. Garrantzitsuena norbera identifikatuta sentitzen den rol bat esleitzea izango da eta bere gaitasunak potentziatzearen bitartez, eginkizunak trebetasunen arabera banatzea eta hartutako ardura nahiz konpromisoak betetzea.

Bestetik, kontzientziarioa aldaketa bera gauzatzeko aurrera eramanez beharrezko fase garrantzitsua da eta antolaketaren aurretik kokatuko da, aldaketaren garrantzia lau haizetara zabaltzen laguntzen duelako. Azken finean, kontzientziarioa aldatu nahi den egoera horren inguruko beharren propaganda egitean datza. Hori lortzeko, oso inportantea izango da proiektua bera saltzen jakitea eta ekarriko dituen onuren berri ematea. Kontutan izanda egun Informazioaren eta Komunikazioaren gizartean bizi garela, sare sozialak bide eraginkorra osatzen dute, baina aurrez aurreko ekitaldiak ere oso garrantzitsuak izango dira.

Hurrengo urratsa antolaketa komunitatea aintzat hartu denean eta kontzientziario kanpaina gauzatu denean burutu behar da. Antolaketak esan nahi du teorian aipatutakoa praktikara eramanez eta testuinguruan bertan aplikatzea. Zehaztu diren helburuak betetzeko, ekimenak eta ekintza konkretuak antolatu eta kudeatu beharko dira. Asmoa komunitateko kide guztien parte-hartze aktiboa lortzea denez, sareak eraiki beharko dira eta egokiena lan talde txikietan jardutea izango da, trebetasunen arabera ordenatuak izango direnak. Hala ere, lan taldeen arteko

koordinazioa ezinbestekoa izango da lortu nahi den hura lortu nahi bada behintzat. Horretarako, etengabeko komunikazioa egon beharko da talde ezberdinen artean.

Garrantzitsua da aipatzea aldaketa gauzatzeko egin diren urrats guztiak, alferrikakoak izango direla eraginkortasunik ez badute. Beraz, kontzientziario kanpaina eta antolaketa produktiboa izatea nahi bada, hori guztia era sortzailean planteatu eta aurrera eraman beharko da. Zergatik? Errazagoa delako jendearen atentzioa eta jakin-mina piztea ekintzak originaltasunez blai eginda baldin badaude. Eta beraz, jendearen kuriositatea piztea lortzen bada errazagoa izango da aldi berean hauen inplikazioa sortzea sormenak eragiten duen motibazio altuaren eraginagatik erakarrita. Modu dibertigarrian aldaketa gauzatu nahi izateak dinamikotasuna eragiten du eta hortaz, baita kideen parte-hartze aktiboaren sustapena ere. Erronka nagusia, beraz, egunerokotasunean ohikoak diren jarduerak alde batera uztea eta aldaketa modu sortzaile batean planteatzea izango da, hiritarren buruan txertatzea alegia. Asmoa da ekintza praktikoak bezain deigarriak diseinatzea eta herritarrak etxera iristean ekintza horren inguruan hitz egitea etxekoekin, kalera irtetea eta ekimenera gehitzea, komunikabideetan ateratzea, haserrea piztea, iraultza grina berpiztea.


Bukatzeko, aipatu dinamizazioaren helburu nagusiena egoera eraldatzea dela garrantzitsuena eta horrek egoera errotik aldatzea eta hobekuntzak txertatzea suposatzen duela. Bestetik, aldaketa bidean goazen heinean oso garrantzitsua izango da etengabeko ebaluazio formatiboa gauzatea, prozesuan zehar ere bat-bateko jardueri aurre egitea tokatuko zaigulako batzuetan eta beste batzuetan, aldiz, plangintzan proposatutakoa gauzatzen ari garen bitartean ekintzari zuku gehiago ateratzeko neurriak bururatu zaizkigulako. Azkenik, lortu nahi genuen helburua betetzea lortu badugu jarraipen bat egitea garrantzitsua izango da, xedea ez kaltetzeko edo hondatzeko. Azken batean, aldaketa beraren helburua begirada aldatzea eta utopia bideragarria egitean baitatza.

Eraldaketa eraginkorra gauzatzeko urratsak hartu ondoren, garrantzitsua da eraldaketa hezitzaileak eta sozialak barne hartzen dituen adierazleak identifikatzea. Horretarako, Barrio de la Puente (2005) "Transformación educativa y social en las comunidades de aprendizaje" testuan proposatzen dituen adierazleak hartuko dituen kontutan. Honakoak dira eraldaketa hezitzailea eta sozialari erreferentzia egiten dioten adierazle nagusiak:

- **Etika eta justizia:** Edozein ekimen edo ekintza hezitzailetan oinarritutakoak diren balioak dira.
- **Aniztasunean berdintasuna:** Ezberdinak garen premisatik abiatuta berdintasun egoera betetzean datza eta aniztasuna aberastasun gisara ikustean.
- **Denentzako ikaskuntza:** Ikaskuntza errazten eta hobetzen duten igurikapen altuak izatean datza eta berdintasunean oinarritutako ikaskuntza bermatzean.

- **Ikaskuntza dialogikoa:** Ikaskuntza dialogikoak ikaskuntza komunitatea osatzen duten eragile guztien arteko elkarrizketa erreflexiboa eta ideiak edota informazioa partekatzea ahalbidetzen dute eta hortik abiatuta ezagutza elkarrekin eraikitzea eta eraldatzea.
- **Ikaskuntzaren bizkortzea:** Ikaskuntza inguruaren aberastasunarekin lotzen da eta helburua ikaskuntza eraginkorra bizkortzea da, bereziki zailtasun egoera nabarmena den esparruetan.
- **Lankidetzeta eta parte-hartzea:** Komunitatea osatzen duten kide guztien parte-hartzea, inplikazioa, ardura eta konpromisoa ahalbidetzea. Parte-hartzeak kalakatzeko, hausnartzeko eta taldean erabakitze bidea zabaltzen du.
- **Ahalduntzea:** Errealitatearen gaineko kontzientzia hartu ondoren, gaitasunak potentziatearen eraginez eraldaketa sustatzeko ekintzak martxan jartzea, goreneko garapen pertsonala, soziala, ekonomikoa, politikoa eta kulturala lortuz.
- **Adimen kulturala:** Komunitatea osatzen duten eragile guztien arteko komunikazioaren, berdintasunean oinarritutako elkarrizketaren eta elkarrekintzaren bitartez ematen den adostasuna. Errealitateko dimentsioaren pluraltasunetik errealitatea eraikitzean datza.

Nire Gradu Amaierako Lana burutzeko sortu dudako marko teorikoa arakatu ostean eta bildutako informazioa aintzat harturik, eraldaketa hezitzailearekin eta eraldaketa sozialarekin bat doazen hitz solteetan adierazleak ipintzen ditut Braimstorming moduan, IKD GAZtE eraldaketa hezitzailetik eraldaketa soziala sustatzen duen proiektua ote den ala ez aztertu ahal izateko ostean.



Berritzailea Ekimen sena Ekintzailetasuna Autonomia
 Metodologia aktiboak Ahalduntzea Aniztasuna IKTak
 Lankidetzeta Gizartearekin harremana Berdintasuna
 XXI. mendeko eskariak Ikaslea ardatza Ikas komunitatea
 Alternatiba Erronkak Ikaskuntza dialogikoa

1.go irudia: *Eraldaketa hezitzailearen eta eraldaketa sozialaren aldagaiak.*

4. HIPOTESIAK ETA HELBURUAK

Nire ikerketa proiektua IKD GAZtEri buruzkoa dela kontutan hartuta, honakoak dira gaiarekiko ditudan hipotesiak:

- IKD GAZtE unibertsitate mailan eraldaketa sustatzen duen proiektua da.
- IKD GAZtEk unibertsitateko ikasleriaren ekimen sena potentziatzen du.
- IKD GAZtEk erabilitako metodologia aktiboak ikasleriaren ikaskuntza prozesua esanguratsu bihurtzen dute.
- IKD GAZtE unibertsitatea osatzen duten komunitate osoaren rol aldaketa eragiten du, ikaslearen protagonismoa gainjarriz bere ikaskuntza prozesuan.
- IKD GAZtE XXI. mendeko erronketara egokitzen da eta horretarako IKTak erabiltzen ditu.

Nire Gradu Amaierako proiektuaren helburu orokorra da IKD GAZtE proiektuaren berri ematea eta eraldaketa hezitzailetik eraldaketa soziala sustatzen duen proiektu bat dela ikertzea. Helburu espezifikoak, ordea, honako hauek dira:

- IKD GAZtEren helburuak zein diren argitzea eta proiektuaren ibilbidea deskribatzea.
- IKD ereduak proposatzen duen hezkuntza eredu formatiboaren barnean, IKD GAZtE proiektuak betetzen duen paperaren berri ematea.
- Unibertsitateak bere testuinguru hurbilean duen inplikazioa neurtzea.
- IKD GAZtEk bultzatzen dituen kompetentziak identifikatzea.
- IKD GAZtEk irakasleriaren eta ikasleriaren rolean eragiten dituzten aldaketen inguruko analisia egitea.
- IKD GAZtE eraldaketa hezitzailetik eraldaketa soziala sustatzen duten adierazleak identifikatzea.
- IKD GAZtE proposatzen duen hezkuntza ereduak dituen onuren inguruko azterketa kritikoa eta proiektua hobetzeko proposamenak egitea.

5. METODOA

Metodoa deritzon atal honetan nire proiektuan erabilitako paradigmaren, diseinuaren, datuak jasotzeko tekniken eta prozeduren eta datuen analisirako tekniken inguruko informazioa ematen da, nire proiektuaren norabidea finkatzeko eta proiektua bera nola eramango dudan jakiteko baliagarria dena.

5.1. Paradigma

Nire Gradu Amaierako Lanaren proiektua paradigma kritikoan oinarritzen da, asmoa IKD GAZtE proiektuaren bitartez egungo hezkuntzaren eta berez, testuinguru sozial hurbilaren errealitatea eraldatzea delako, hezkuntza praktikaren etengabeko hausnarketaren erabileraren bitartez hain zuzen. Proiektuaren nondik norakoen berri emateaz gain, praktikak emandako ikuspegiaren bitartez, hobekuntza proposamenak egitea baita nire asmoa. Nire helburua askatasun eta emantzipaziorako ezagutza eraikitzea da, hau da, egungo jendarteko erronka anitzekin bat egiten duen ekimena garatzea, etengabeko egokitzapenak egin bitartean.

Nire proiektua paradigma honetan kokatzearen beste arrazoia eraikuntza teorikoak era kooperatibo batean komunitatean eramaten direla aurrera da, proiektuak ekintza estimulatu eta nire kasuan, proiektuaren urrats guztiak bizitu ditudalako, hau da, ikertzaile parte-hartzailearen papera jokatu dudalako.

5.2. Diseinua

Erabili dudan ikerkuntza diseinua ikerketa-ekintza-partehartzailea izan da hainbat arrazoi direla eta. Batetik, proiektu honen bitartez, praktika sozialen eraldaketa aurkitzeko helburua daukat eta bertan konpromiso eta parte-hartze zuzena nahiz lankidetzaren harremanak mantendu ditut. Bestetik, IKD GAZtE etengabeko eraldaketan aurkitzen den prozesu zirkular bezala eta ikuspegi komunitario batetik garatzen den talde inplikaziotik sortzen dela ikusten dut, hau da, IKD GAZtEk testuinguru hurbila osatzen duten eragile guztiekin harreman horizontaletan oinarritutako erlazioak mantentzen dituela eta denen artean egoerari erantzun global bat ematen ahalegintzen direla. Bertan ondorengo faseak aurkitzen dira:


1. Ekintza edo proiektuaren planifikazioa (IKD GAZtE proiektuaren diseinua).
2. Ekintza (IKD GAZtE proiektuaren aplikazioa).
3. Informazio bilketa (Ekintza lerroen eraginkortasuna neurtzeko tresnak).
4. Hausnarketa (Ekintzen efektuen inguruko ondorio eta hobekuntza proposamenak).

5.3. Datuak jasotzeko tresnak eta teknikak

IKD GAZtE eraldaketa hezitzailetik eraldaketa soziala sustatzen duen proiektua dela aztertu eta neurtu ahal izateko, datuak jasotzeko tresna eta teknika ezberdinak ditut.

Hasteko, IKD GAZtE proiektuak hastapeneko hiru urteotan eraikitako material idatzia, grafikoa eta ikus-entzunezkoaren bilketa eta analisia egin dut, proiektuaren deskribapena egiteko. Arakatutako materialen artean bigarren mailako iturria osatzen duen ondorengo materiala erabili dut: komunikazioak, posterrak, web orria eta ikus-entzunezko materiala besteak beste.

Bestetik, lehen mailako iturria osatzen duen ebaluazio tresnak eraiki ditut, IKD GAZtEk proposatzen duen hezkuntza ereduak dituen aldagai eta ezaugarriak identifikatzeko asmoz. Lehenengo eranskinetan aurkitzen diren elkarrizketa irekiak proiektuaren parte diren Talde Sustatzaileko kideei bi kideei eta proiektuan lankidetzan harremana mantendu duten bi eragile sozialei nahiz zuzenean moduluan parte hartu duten bi ikasleei bideratuak daude, ikuspegi globala lortu nahirik ebaluatzaileen triangulazio batetik.



2.go irudia: *Lehen mailako iturriaren lagina.*

Eta bukatzeko, lehen mailako eta bigarren mailako iturrietatik nahiz marko teorikoa aintzat hartutik, IKD GAZtEk eraldaketa sozialarekin mantentzen duen erlazioa aztertzen da eta hobekuntza proposamenak egiten dira, eremu hezitzailetik eratorritako eraldaketak alor sozialean eragindako eraldaketa sortzen duen aldagaiak identifikatuz.

6. NONDIK DATOR IKD GAZtE?

6.1. IKD eredia

IKD GAZtE proiektuaren inguruko xehetasunetan murgildu baino lehen, beharrezkoa da IKD eredia nondik datorren ulertzea eta bere ekintza lerro nagusiak zein diren adieraztea. Beraz, ondorengo orrialdeetan IKD ereduari buruzko informazioa ematen da¹.

6.1.1. IKD ereduaren iturburua

Unibertsitatearen zentzua eta egitekoa testuinguru eta garai jakin bateko eritimoarekin lotuta soilik uler daiteke. Horrek adierazten du unibertsitateak jendarteko garaiko dinamika sozial eta kulturaletara egokitu behar duela ezinbestean. Azken hamarkadetan bereziki mundua azkartasunez eraldatzen ari da etengabe eta hori dela eta, unibertsitateko curriculum orokorrak etengabeko eraldaketa horretan murgilduta dagoen eta ezjakintasunak agintzen duen XXI. mendeko gizartearen beharretara eta eskarietara egokitu behar du erakunde bezala garatu ahal izateko. Unibertsitatearen egiteko nagusia da beraz, bere esparruan gertatzen denarekiko kontzientzia duten eta sentikorrek diren, etengabeko aldaketetara egokitzeko gaitasuna duten eta arazo berriei era sortzailean eta kritikoa erantzuteko pertsonak trebatzea eta formatzea.

UPV/EHU kontziente da ezagutzaren gizartean dauden erronkei aurre egiteko beharrean aurkitzen dela eta horri ekiteko bere unibertsitate identitatea garatzea ahalbidetzen dion marko baten barruan ekimen berritzaileak egin ditu, bere titulazioen garapen kurrikularra bultzatuz. Zentzu honetan Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrurako (GMHEE) bateratasun neurri komunek eta horrek suposatzen dituen egitura-erreformak eredu propio bat garatzeko aukera eskaintzen dute.

UPV/EHU akordio horretan adostutako puntuak aplikatzeko egokitzapenak egin behar diren egoeran aurkitu da, baina aldaketak mehatxu moduan bizitu beharrean, aukera bezala bizitu nahi izan ditu, Europako akordioaren puntuak betetzera konprometitzeaz gain, Euskal Herriko identitate propioarekin bat egiten duten egokitzapenak ere txertatuz, Europa nahiz bertoko eskari, premia eta beharrei erantzunez, etorkizunari lotutako ikuspegia aintzat hartuz bere titulazioen curriculum-garapena sustatuz eta ekintza berritzaileak landuz. Egitura aldaketek kalitate, lehiakortasun eta bikaintasun irizpideetan oinarritutako hezkuntza-eredu propioa osatzeko aukera eman dio EHUri. IKD eredia erabaki horren emaitza da, etengabeko eraldaketaren iturri horretatik edaten duen eredu formatibo propioa hain zuzen ere.

IKD ereduaren eraikuntza prozesua Euskal Herriko, Espainiar Estatuko eta Europako unibertsitateen azterketa kritiko bat burutu ostean hasi zen eraikitzen.

¹ <http://www.ikasketa-berrikuntza.ehu.es/p272-shikdhm/es/>

Azterketa horretan ikusi zuten Espainiako unibertsitatean gehien garatzen ziren konpetentziak eduki akademikoekin zutela zerikusia eta irakaslea zela jakintzaren iturria. Bestetik, ikusi zuten arazo edo problematika bati aurre egiteko zailtasunak zituztela ikasleek, mugikortasun programak ez zirela eraginkorrak, baina batez ere, ikaskuntza autonomia ez zela potentziatzen, ezta zeharkako konpetentzien parte diren gizarte trebetasunak ere. Horrez gain, ikusi zuten lan munduarekin erlacionatutako esperientzia gutxi sustatzen zirela unibertsitate eremutik. Azterketaren ondoren, kanpoko nahiz bertako eskariekin bat egin zezaketen zutarriak finkatzen hasi ziren, berrikuntzari eta kalitateari erreferentzia egiten dioten ezaugarri eta ideia batzuk mahai gainean jarriz. Horra eraikuntza prozesu horretan ateratako ideia horietako batzuk:

- Ikaslea irakaskuntza-ikaskuntzaren erdigune.
- Konpetentzien garapena: Jakiteko, egiteko, egiten jakiteko eta izaten jakiteko gai.
- Metodologia aktiboak: Ikasleak eraikitzen du ezagutza.
- Ikaskuntza gelan eta gelatik kanpo.
- IKTen erabilera didaktikoa.
- Etengabeko ebaluazioa: Prozesua.
- Ikaskuntza auto-gidatua, bakarkakoa eta taldekoa.
- Testuinguru eleanitza.

Sintesi lan horretatik IKD ereduari corpusa eman zaio eta oinarriak nahiz oinarri horiek martxan jartzeko programak sustatu dira eta irakasleak irakaskuntza-metodologia berrietan trebatu dira.

6.1.2. IKD ereduaren oinarriak

IKD ereduak ikasleetan oinarritzen den eredu da, Ikaskuntza Kooperatiboa eta Dinamikoa sustatzen du eta irakaskuntzen curriculum-garapenerako honako filosofia larroak bultzatzen dira:

- Areatza ikasleen ikaskuntza-prozesua. Metodologia aktiboen bitartez IKTen laguntzarekin, ikaskuntza sustatzen du, irakaskuntza-testuinguru eleanitzean.
- Dinamikoa eta aktiboa. Egokitze eta aldaketa premiei erantzuteko (titulu berriak diseinatzea eta ezartzea, ECTS kredituak onartzea, berrikuntzarako premia jabetzea...) eta trebakuntzari begira sortzen diren eskari berriei erantzuteko (etengabeko trebakuntza eta zuzeneko ez den trebakuntza), antolamendurako eta metodologiari begirako beste erroka batzuk proposatu dira.
- Plurala. Tokian tokiko interpretazioa du, askotarikoa; titulu eta ikastegi bakoitzak bere interpretazioa egiten du, EHUko nortasun bateratuari erantzunez.
- IKD ereduaren oinarrian hezkuntza-komunitatea osatzen duten eragile multzo osoaren arteko lankidetzaren lana dago: ikasleak, irakasleak, administrazio eta zerbitzuakotako langileak, sailak, ikastegiak eta gizarte eragileen arteko

kooperazioa. Horiek guztiek irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuen gaineko proiektuak eta ekimenak partekatzen dituzten, elkarri begirako konfiantza giroan.

6.1.3. IKD ereduaren ardatzak

Kontutan izanda IKD ereduaren titulu berrien curriculum-garapena etengabeko hazkuntza batean dagoela murgildua, funtsezkoa da hedakuntza bideak azaltzea.

LANGILE GARAPENA

Lanbide garapenak irakaskuntza-ekintzarekin zerikusia duten pertsonen etengabeko trebakuntzarekin du zerikusia, hau da, irakasleen eta irakaskuntza-jardunean laguntzen duten langileen formazioarekin, hezkuntza berrikuntzara bideratzen den lanbide-garapen egokia bultzatze aldera. Besteak beste, trebakuntza-programen (ERAGIN, BEHATU eta UIPP Unibertsitateko Irakasleentzako Prestakuntza Programa), hezkuntza-berrikuntzari laguntzeko proiektuak (PIE) eta irakaskuntza-jarduna ebaluatzeko tresnak (DOCENTIAZ) lantzen dituzte IKD osatzeko ekintzak.

LURRALDE ETA GIZARTE GARAPENA

IKD ereduaren garatzeko, bestalde, ezinbestekoa da etengabeko prozesu bat. Horren bitartez, UPV/EHUK bere gizarte eta komunitate inguruneari begirako konpromisoa hartzen du. Bokazio publiko eta ekonomikoari zein gizarteari begirako iraunkortasun irizpideak ditu; eta zuzentasun zein txertatze balioak sustatzen ditu. Era berean, IKDk aintzat hartzen ditu unibertsitatea kokatuta dagoen hiru lurralde historikoetako bakoitzaren ezaugarri eta berezitasunak, horiek sustatzeko asmoz; bide beretik, horietako bakoitzari dagokion trebakuntza ahalmena eskuratzen ahalegintzen da.


Gizarte inguruneari begirako erantzukizuneko curriculum garapena, hain zuzen, kanpo praktiken, gizarte ekimenekin egindako lankidetzen, gizarte sareen, enpresarekiko harremanaren, eta nazioarteko eskarmentua eta gure ikasleen lankidetzara lana sustatzen duten mugikortasun programen bitartez gauzatzen da.

POLITIKA INSTITUZIONALAK

IKD curriculum garapenak politika instituzionalak bultzatzen ditu, irakaskuntzarekin zerikusia duten eragileen arteko lankidetzara, parte-hartzea eta komunikazioa sustatzeko, konfiantzan eta dinamismoan oinarritutako giroan. **Ehundu** eta pareko programak funtsezko elementuak dira irakaskuntza kultura berri honetan. Izaera instituzionaleko beste ekintza batzuk, ordea, IKD kultura sustatzeko ikuspegitik hartu beharko dira aintzat. Ekintza hauek, esaterako: hainbat irakaskuntza moduren eskaintza, IKTen erabilera garrantzitsu eta iraunkorra, ebaluazioarekin lotutako araudi instituzionalak, irakaskuntza ikastegien eta espazio komunen azpiegituren diseinua eta espazioak erabiltzeko ordutegia handitzea.

HEZKUNTZA AKTIBOA

IKDk gonbita egiten die ikasleei, ikaskuntzaren beraren protagonista eta unibertsitatearen gobernurako elementu aktibo bihur daitezzen. Horretarako, metodologia aktiboen bitartez (ERAGIN, UIPP Unibertsitateko Irakasleentzako Prestakuntza Programa) egindako ikaskuntza-prozesua sustatzen du, etengabeko eta trebakuntzazko ebaluazioa bermatzen du, ikastegietan harrera-programak sustatzen ditu, aurretiaz duen eskarmentua aitortzeko modua finkatzen du (akademikoa, profesionala, bizitzakoa, kulturala), eta mugikortasun-programak (ERASMUS, SENEKA) eta lankidetzaprogramak sustatzen ditu.



3.go irudia: IKD ereduaren Curriculum-garapeneko ardatzak.

EHUko zentro eta fakultateetan IKD eredia txertatzeko, zentro bakoitzak EHUNDUren bitartez konpromiso dokumentu bat sinatzen du, ikasturte akademiko horretan garatu beharrekoa betetzearen ardura ziurtatuz. Zentro bakoitza hautatutako adierazleak eta helburuak betetzera konprometitzen da. Konpromiso dokumentu hori bolondreski sinatzen da Kalitate eta Irakasle Berrikuntzaren Errektoreordetzaren eta zentro bakoitzaren artean, IKD ereduak proposatzen dituen ardatzen arabera adierazleak kontutan hartuta. Zentroak finantzaketa jasotzen du helburuak lortzeko programa bideratzeko eta ikasturte amaieran konpromisoak bete direla ziurtatzean.

Hortaz, eredu honen bitartez, ikasleriak bere ikaskuntza prozesuan paper aktibo, autonomo eta protagonista bat jokatzea lortu nahi da, egoera errealean proiektu autogestionatuak burutuz. Era berean, orientatzaile rola eskuratzen duten irakasleriarekin lankidetzaren harremanak mantentzea lortu nahi da. Horretarako, ereduak beharrezkoa du unibertsitateko ikasleriak paper aktiboa eskuratzea eta bere formazioan zein unibertsitateko bizimoduan inplikatzeko. Hedakuntza bide horiek indartzeko asmoarekin jaio zen IKD GAZtE 2011/2012 ikasturtean.

7. IKD GAZtE

7.1. Zer da IKD GAZtE?

IKD GAZtE 2011/2012 ikasturtean Gipuzkoako Kanpusean arestian azaldutako curriculumara garatzeko IKD ereduaren magaletik jaiotzen den egitasmoa da, XXI. mendeko jendartearen erronkei aurre egitearen beharretik hain zuzen ere. IKD GAZtE Talde Sustatzailea deituriko diziplina ezberdineko UPV/EHUko ikaslez osatutako proiektu autogestionatua da, ikasleriak ikasleriarentzat kudeatutakoa eta dinamizatutakoa hain zuzen ere. Programaren ebaluazioa Talde Mistoaren bitartez eramaten da aurrera, hain zuzen ere, ikasle Talde Sustatzailearen, erakundeetako ordezkarien eta Idazkaritza Teknikoaren bitartez.

Proiektua UPV/EHUko Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren barnean loratzen den proiektua da, Berrikuntza eta Gradu Ikasketen Errektoreordetzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismo Sailaren eta zehazki esateko Gipuzkoa Ekintzailearen babes, finantzaketa eta lankidetzarekin batera. 2012/2013 ikasturtetik aurrera, IKD GAZtE Euskampus Nazioarteko Bikaintasun Fundazioaren strategiaren barnean txertatzen da eta Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoretzaren eta Berrikuntza eta Gradu Ikasketen Errektoreordetzaren babesa eskuratzen du.

Egitasmo honen helburu nagusia modu aktiboan ikasteko metodologiak ezartzeko prozesuan ikasleriaren ahalduntzea, aktibazioa, inplikazioa eta ekimen sena sustatzea da eta aldi berean, IKD ereduak proposatzen dituen balioen sentsibilizazioan parte-hartzea eta ikasleria ekintza lerro horien baitan mobilizatzea. Helburu horiek lortzeak ikasleria eta irakasleria, eraldaketa sozialean dagoen testuinguruan, botere egitura horizontalean kokatzeko mekanismo kurrikularrak eta extra-kurrikularrak sortzea suposatzen du. Ahalduntze hori ikasleriaren autonomiaren garapenaren bitartez eramatea da xedea, beren ikaskuntza prozesuaren ardura hartzearen ideia helaraztearen bitartez.

IKD GAZtEk ipintzen dituen helburu horiek ulertu ahal izateko, beharrezkoa da ahalduntzea eta ekimen sena bezalako kontzeptuetan gehiago sakontzea. Beraz, hurrengo lerroetan termino horiek IKD GAZtE ikuspuntutik lantzen dira:

- **Ikasleriaren ahalduntzea:** Aldaketa positiboak sortzeko helburuarekin, ekimen senarekin lotutako kompetentzietan oinarritutako ikasleriaren formazio aktiboa da, hau da, bere ikaskuntza prozesuan eta unibertsitateko bizimoduari buruzko erabaki hartzean inplikatzeko eta parte-hartze aktibo bat izateko gaitasunen eta ezagutzen eskurapena.

- **Ekimen sena:** Ikasleria bere irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren protagonista bilakatzea inizatibaren eta ekintzaitetasunaren bitartez. Iniziatibak ideiak ekintza bihurtzeko gaitasuna izatea eskatzen du eta beraz, pentsamendu sortzailea eta berritzailea garatzea eta helburuak lortzeko proiektu planifikatuak aurrera eraman eta kudeatzeko arriskuak hartzeko beldurrik ez izatea, ausarta izan eta aukerak gaitasunez zipriztintzea eta aprobetxatzea alegia. Ekintzaitetzak gobernantza onuragarria bultzatzen du eta sare sozialak eta kontaktuak egitea.

7.2. Proiektuaren ibilbidea

7.2.1. 2011/2012 ikasturtea

Lehen esan bezala, IKD GAZtE 2011/2012 ikasturtean jaio zen. Udan zehar, proiektuaren ekintza lerroak zehaztu ziren eta proiektuaren prestakuntza gauzatu zen erakunde ezberdinetako koordinazioaren iniziatiba aurrera eramanez. Iraila eta urria bitartean Talde Sustatzailea eratzeko deialdia zabaldu zen eta aurkeztutako unibertsitateko ikasleen hautaketa bat egin ondoren, IKD GAZtEren Idazkaritza Teknikoarengandik koordinatuta, praktika bolondres ordainduak egiteko Talde Sustatzailea eratu zen. Ikasturte horretan, Talde Sustatzailea zazpi kidek osatzen zuten eta proiektua behar bezala aurrera eraman ahal izateko, zeharkako konpetentzietan (eduki instituzionalak eta pedagogikoak eta taldeen dinamizazioak, besteak beste) formazioa jaso zuten hurrengo bi hilabetetan irakasle eta bestelako profesionalen eskutik. Aldi berean, Talde Mistoia deiturikoa sortu zen, hau da, Talde Sustatzaileaz eta erakundeetako arduradunaz eta Idazkaritza Teknikoaz osatutako taldea, proiektuaren inguruan elkarrekin hausnartzeko eta erabakiak hartzeko instantzia osatuz.

Tailer formatiboak jaso bitartean, IKD GAZtEren irudi korporatzailea joan zen eraikitzen, hala nola, logoaren diseinua, promozio materiala (kamisetak, boligrafoak, enara, poster grafikoak, txartelak, tailerretako materialak) eta euskarri grafikoak, beste hainbat gauzen artean eta Facebook, Tuenti, Twitter eta bloga bezalako Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia ezberdinen bitartez, proiektuari zabalkundea eman zitzaion.

Talde Mistoarekin bilera bat egin ondoren, IKD GAZtE ezagutzera emateko asmoz eta ikasleriarekin lehen harremana eta hurbilketa emateko asmoz, “Moskeo Kanpaina” abiatzeko Gipuzkoako Kanpuseko zentroak hautatu zituzten. Bertan, “Piegatina” deituriko eranskailuak diseinatu zituzten eta honako esaldiak ipini zituzten bertan:

- Bidea ibiliz egiten da.
- Pentsatze hutsarekin ez da nahikoa, ekin!
- Utzi zure arrastoa Unibertsitatean.
- Esateko modurik onena egitea da.



Martxoa eta apirilean bi diagnostiko tailer gauzatu zituzten Informatika Fakultatean eta Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan, unibertsitateko ikasle bizitzari buruzko informazioa jasotzeko eta haiek unibertsitateari buruzko zuten iritzia jasotzeko. Tailer horietan Focus Group bat egin zen eta ikasleriak eta irakasleriak unibertsitateak zuten rolaen eta parte-hartzearen inguruko mapa bat egitea lortu zen eta egungo unibertsitateak ametsetako unibertsitateara igarotzeko gakoak eta ezaugarriak identifikatu zituzten. Aldi berean, IKD GAZtEk ikasleen parte-hartze aktibo eta proaktiboak unibertsitatearengan duen eragina islatzen zuen bideo² autogestionatu bat grabatu zuten UPV/EHUko Bilboko Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoko Saltillo itsasontzian eta tailerretan proiektatu zituzten.

Diagnostiko tailerrean ateratako ondorioak gaiaren araberrako bost kategoriatan sailkatu daitezke:

1.go taula

Unibertsitatearen egoera ikasleriaren ikuspegitik.

| KATEGORIAK | UNIBERTSITATEAREN EGOERA IKASLERIAREN IKUSPEGITIK |
|---|--|
| Unibertsitate identitatea | <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleria orokorrean ez da unibertsitatearekin identifikatzen, ez da bere parte sentitzen. - Euskara bigarren maila batean geratzen da. - Ikasleria unibertsitateak at geratzen da, motibazio, inplikazio edo baliabide faltagatik. |
| Eragileen arteko lankidetzak | <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleria, irakasleria, administrazioa, ikertzaile, gizarte, enpresa eta erakundeen artean koordinazio, komunikazio eta lotura gabezia. - Ekitatea eta ahalduntzea zailtzen duten traba administratiboak. - Ikasleria-jendartea eta ikasleria-enpresa lotura eza. |
| Formazio eguneratua eta egokitua | <ul style="list-style-type: none"> - Ikaskuntza teoriara mugatzen da gehienetan, ez da lan egiten kasu erreal, praktiko eta eguneratuetan. - Metodologia zaharkituak erabiltzen dira eta ikasleria gehiegi saturatzen da (gaizki administratutako lan zama handia, azterketa partzial eta bukaerakoak, talde lanetarako babes gabezia...). - Beste hizkuntzetan formatzeko aukerarik ez dago. - Ezin dira ikasketak lan praktikekin uztartu, ez dagoelako eskaintzarik. - Irakasleriak ez du ikasleriaren parte-hartzea sustatzen gela barnean. |
| Komunikazio eraginkorra | <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleriak adierazten du informazioa ez dela nahikoa eta eskuragarri duten informazioaren sarbidea ez dela argia beraiantzat. - Eskatzen den informazioa: errealitate laborala, zer egin ikasketak amaitzean, beka ekonomikoak eta mugikortasun beka. - Lan metodologiak berriak ez dira ezagutzen, ezta haien abantailak eta eskuratu beharreko konpetentziak ere. |
| Azpiegiturak | <ul style="list-style-type: none"> - Egokitzapen falta ikasgeletan teknologia berriei dagokionean. - Garraioekin erlazionatutako gastuak handiak dira. |

² IKD GAZtE: Zein da zure papera itsasontzi honetan? (http://www.youtube.com/watch?v=vp_rSCPGM9o)

Egungo unibertsitatearen errealitateko egoera aztertu ostean, ametsetako unibertsitatearen ezaugarriak hezurmamitu zituzten, aurretik aipatutako bost kategorien araberrako sailkapena eginez.

2.go taula

Ikasleriaren ametsetako unibertsitatea.

| KATEGORIAK | IKASLERIAREN AMETSETAKO UNIBERTSITATEA |
|---|--|
| Unibertsitate identitatea | <ul style="list-style-type: none"> - Berrdintasuna, askatasuna, sormena, ekimen sena, eragileen arteko inplikazioa, laguntasuna, ekologia eta zorientasuna bezalako balioak presente egon behar dute unibertsitatearen identitatearen barnean. - Euskara integratua eta normalizatua. - Etika eta kontzientzia kritikoa. - Inter-multikulturalitatea. - Unibertsitate inklusiboa, lehiakorra, bikaintasun irizpidetan oinarritua, ikasleriaz harro dagoen unibertsitatea. - Batasuna, integrazioa, parte-hartzea, errespetua, eskuragarritasuna, komunitate sentimendua. |
| Eragileen arteko lankidetz | <ul style="list-style-type: none"> - Lankidetz, parte-hartzea eta komunikazio eraginkorra eta hurbila. - Ahalduntzea eta ikasle aktiboa. - Interes komuna kontutan hartuz lan egitea. - Ardura, iraunkortasuna eta konfiantza. - Sentimendu elkarkorra, izpiritu kooperatzailea, ikasleria kontzientziatua eta interkonexio jariora. - Boterearen eta koordinazio egokiaren arteko oreka. - Komunikazio internazionala. |
| Formazio eguneratua eta egokitua | <ul style="list-style-type: none"> - Formazio eguneratua, berritzailea, etengabekoa eta kalitatezkoa. - Metodologia aktiboak, dinamikak, ikaskuntza tailerrak. - Zentzu komuna. - Ikerkuntza. - Design thinking, learning by doing. - Lan munduan praktikak eta formazioa atzerrian. - Konpetentziak garatzen ikastea eta baliabideak eskura izatea. - Irakasleri kualifikatua. |
| Komunikazio eraginkorra | <ul style="list-style-type: none"> - Informazio erreala, egitua, eskuragarria eta zentralizatua. - Eragileak egoki informatuak egon behar dute. |
| Azpiegiturak | <ul style="list-style-type: none"> - Espazioak ikaskuntzaren erraztatzaileak izan behar dute: ikasketa, formazioa, eragile ezberdinen arteko komunikazioa ahalbidetu behar dute. - Denentzako eskuragarriak diren espazioak: topaketa guneak, gune berdeak. - Garraiorako erraztasunak. |

Tailerretan ateratako ondorioak aztertuta, ikasleriak bere esku dagoenaren, eragin dezakeenaren eta bere esku ez dagoen adierazleak identifikatu zituen eta horri aurre egiteko ekintza lerro nagusiak proposatu ziren.

3.go taula

Diagnostikoaren ondorioak eta ekintza lerroak.

| ONDORIOAK | EKINTZA LERROAK |
|---|--|
| 1. IKASLERIAREN ESKU | |
| Unibertsitateko identitatea indartzea eta informazio sistema aldatzea | <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleriak informazioa transmititzeko baliabideak eskaintzea. - Ikasleria unibertsitatearen parte dela sentsibilizatzea. |
| Bertako eta kanpoko ikasleriaren integrazioa eta parte-hartzea bultzatu | <ul style="list-style-type: none"> - Kirol ekitaldiak, ekitaldi kulturalak eta ludikoak antolatzea. - Kurtso eta fakultate ezberdineko ikasleriak elkarrekintzan lan egiteko proiektuak. - Buddy Systema (bertako ikasle tutorea) bultzatu ERASMUS ikasleriarentzat. - Lankidetzan inplikatzeko duen ikaslerien arteko lehiaketa positiboak. - Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza metodologiaren erabilera eta burututako lanak erakusteko aukera. - Lan munduan praktikak eta formazioa atzerrian. |
| Ideiak, komentarioak, proposamenak eta abarren ekarpenarako espazio berrien sorrera | <ul style="list-style-type: none"> - Ekarpenak plazaratzeko espazio fisiko edo birtualaren sorrera (informazio puntua edo IKD GAZtE adibidez). - Ekarpenak egiteko bide berriak irekitzea, adibidez “World kafeak”. |
| 2. IKASLERIAK ERAGIN DEZAKEENA | |
| Formazio eguneratua/egokitua eta eragileen arteko interkonexioa | <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleriaren formazio plana berrikusi. - Ikasleriak kasu errealean lan egitea. - Eragile ezberdineko lankidetzan aritzeko bideen inguruko ikerketa burutzea. |
| Euskararen erabilera normalizatua Unibertsitatean | <ul style="list-style-type: none"> - Euskararen erabileraren beharraren sentsibilizazioa Unibertsitatean inplikaturik dauden eragileei. - Ikasleriak eskaintutako doako ikastaroak, euskara ezezagun duten ikasle eta irakasleentzat. - Irakasleriak euskara maila egokiaren egiaztatzea. |
| Ikasleriaren eta irakasleriaren arteko erlazioa hobetzea, ikasleria ahalduzko ideien haritik | <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleria eta irakasleriak esparru informalean batean eta elkarlanean lan egitea. - Ikasleriak eta irakasleriak parte-hartzen duten ekitaldiak antolatzea (IKD workshop bat, kirol txapelketa,...). - Irakasleria ikasleriaren ahalduzkoan sentsibilizatu. - Ikasleriaren eta irakasleriaren arteko koordinazioa sustatu azterketen datak eta lan entregak zehazteko orduan. |
| Ikaskuntza metodologiak testuingurura egokitzea, ikaskuntza aktiboa ahalbidetzen duten | <ul style="list-style-type: none"> - Irakasleriaren formazioa metodologia aktiboetan. - Metodologia berdina euskara eta erdara taldeetan (zeregin, lan eta proiektu berdina). Honen arduraduna |

| | |
|---|--|
| metodologiak praktikan jartzea. Materialak eguneratzea eta ikasleriaren ezagupena (errealitatera orientatutako teoria) | konpromiso dokumentuen titulazioen koordinatzailea izango da. - Formatzaileak formatzeko planen eraikuntza. - ERAGIN programaren jarraipena eta indartzea. |
| Lan mundurako prestakuntza handiagoa (lan praktikak egiteko aukera zabalagoa, enpresetan erabiltzen diren programen erabilera, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, konpetentzien aitortza...) | - JUNE enpresa (Junior enpresa) Kanpus guztira zabaldu eta informatu. |
| Bertako nahiz atzerriko zentroyen arteko elkarrekintzaren sustapena. | - Titulazio ezberdineko edo unibertsitate ezberdineko ikasleriaren artean eraikitako proiektu komunak. Eragileek aurkeztutako proiektu errealetan lan egin. - Askatasun guneen erabilera beste unibertsitateetan. |
| Unibertsitatea, enpresa, erakundeak, herritarrak eta bestelako eragileen lankidetzaren bultzatzea. | - Eragileek aurkeztutako proiektu errealetan lan egin. - Eragile hauen interakzio zenbakia handitzea (konpromiso dokumentuan jaso). |
| 3. IKASLERIAREN ESKU EZ DAGOENA | |
| Azpiegituren inguruko erabakiak | - Azpiegituren inguruko erabaki hartzean ikaslerian inplikatzeko. - Sarbide eta eskuragarritasuna, erabilgarritasuna, erosotasuna, gabeziak eta bestelako alderdiak ebaluatu. |

IKD GAZtEko Talde Sustatzaileak tailerretan aterako emaitzak partekatu zituen esperientziak parte hartutako eta inplikaturako ikasleriarekin eta irakasleriarekin eta proiektuaren etorkizun hurbileko urrats edo ekintza lerro nagusiak hausnartu eta erabaki ziren. Bertan Talde Sustatzaileak, Gipuzkoako Ikasle Kontseiluak, tailerrak gauzatu diren Fakultateen irakasleri ordezkariak eta IKD GAZtEko Idazkaritza Teknikoak parte hartu zuten. Ikasturte amaieran, Talde Mistoan IKD GAZtEren lehen urteari buruzko ebaluazio tailer kualitatibo eta parte-hartzaile bat gauzatu zen, bereziki ikasleriaren ahalduzko eta etorkizuneko ekintza lerroen proposamenean zentratua. IKD GAZtEk lehen ikasturtean burututako jardueren laburpen bideo bat burutu zuten ikasturte amaieran³.

7.2.2. 2012/2013 ikasturtea

2011/2012 ikasturtearen amaieran aterako emaitzak Talde Mistoan ebaluatu ondoren, hiru jarduketa ildo nagusi proposatu ziren 2012/2013 ikasturterako: Batetik, unibertsitate bizitzan eta ekitaldi desberdinetan aktiboki parte-hartzea; bestetik, ikasleak

³ IKD GAZtEren 2011/2012 ibilbidea: (<http://www.youtube.com/watch?v=DUhMBo6weLg>)

unibertsitatearekin inplikatzearen garrantziaren inguruan sentsibilizatzea; eta azkenik, ekimen sena bultzatzen duen ikaskuntza modulu bat diseinatu eta aplikatzea. Azken ildoak garrantzi berezia hartu zuen.

7.2.2.1. Ekimen Sena bultzatzen duen Ikaskuntza Modulus

Modulu horretan, ikasleriak bere behar propioei erantzuteko baliagarri suertatuko zen eta ekintza pedagogiko bat aurrera eramatearen erronka parte-hartzaile bat diseinatzea erabaki zen. Beraz, bost kidez osatutako Talde Sustatzaileak Ekimen Sena bultzatzen duen Ikaskuntza Modulu pilotu bat lehenengo lauhilekoan diseinatzeko eta bigarrenengo lauhilekoan aplikatzeko ardura hartu zuen. Modulus honek ikasleriak autogestionatutako gune formatibo bat sortzeko nahia zuen.

Moduluaren helburu nagusia ikasleriarengan ekimen sena nahiz ekintzailetasuna sustatzea eta proiektuen sorkuntzaren bitartez Europar Batasunak adierazten dituen zeharkako konpetentzien (EB, 2006) jabe egitea izan zen. Lanak proiektu bitartez egiteak autogestio maila bat izatea eskatzen du eta beraz, moduluko parte-hartzaileak beraien ardura eta autonomia lantzea, bai ikasteko garaian, baita lan egin eta erabakitzeko garaian ere. Moduluan Gizarte Hezkuntza, Psikologia, Erizaintza eta Ingenieritza Informatikoko 28 ikaslek parte hartu zuten eta Helduak Adi! eta Erroak eragile sozialek ikasleak talde multidiziplinarretan erantzun beharreko bina erronka bota zituzten. Amaieran, Talde Mistoan moduluaren balioespen ebaluazio saio bat egin zen, prozesuaren berri emanez, ondorioa nagusiak atereaz eta hobekuntza proposamenak eginez.

Moduluaren edukia eta garapena


Modulus guztira 3 orduko iraupeneko presentziazko 8 saioz osatuta dago. Hortaz aparte, ikasle parte-hartzaileek guztira 3 ordu ez-presentzial sartu behar dituzte, 2 ECTS-en aitortzari men eginez, guztira 50 orduko dedikazioa eskainiz moduluari.

Modulus martxoa eta maiatza bitartean eskaini zen. Saio horietan parte-hartzaileek beren ikaskuntza-zerbitzu proiektua diseinatu, gauzatu eta ebaluatu egiten dute.

Lehenengo sei saioetan talde interdiziplinarretan burututako proiektuak diseinatu dira. Ondoren, 7. saioan, autogestionatutako proiektu hori aplikatzen da, eragile sozialekin eta erabiltzaileekin adostutako egun batean. Eta azkeneko saio horretan moduluaren ebaluazioa eta aurkezpenak egiten dira. Modulus Joxe Mari Korta eraikinean burutu zen. Ondorengo irudian esperientzia pilotuaren diseinuaren laburpen bat ageri da eta ondoren, saio bakoitza azaltzen da xehetasun gehiagoz.

- Informazioaren laburpena
- Bateratze-lana
- IKTen aurkezpena
- Lan-taldeak sortu

• **Prototipoaren** hastapena eta bideoen erakusketa



4.go irudia: Moduluaren saioen irudi grafikoa.

- 1) Lehenengo saioa. Moduluaren aurkezpena.** Saio honetan, moduluaren aurkezpena daio talde parte-hartzaileari, eta moduluaren helburuak eta metodologia azaltzen dira. Talde giro ona sortzeko dinamikak egiten dira. Gune bat ezartzen da gizarte eragileek, IKDkide taldeak eragile horiekin lankidetzara esparru bat identifikatu ondoren, beren burua aurkezteko, zer lan egiten duten kontatzeko eta beren beharrak azaltzeko. Azkenik, parte-hartzaile bakoitzak gizarte eragileetako bat aukeratzen du eta eragile horren erabiltzaileen inguruko informazioa bilatzen du etxean.
- 2) Bigarren saioa. Taldeak sortzea eta prototipatze hastapenak.** Saio honetan lehenengo bi saioetan lortutako informazioa elkarri azaltzen diote eta laburbildu egiten dute, zerbitzuaren oinarri teorikoa eta testuinguru oinarria sortzeko.
- 3) Hirugarren saioa. Ikasleak eta beren proiektua.** Saio honetan, talde bakoitzak bere zerbitzuaren inguruan dituen igurikapenak lantzen ditu. Dinamikak egiten dira, beren zerbitzua nolako izatea nahiko luketen, onuradunei nola eragingo liekeen eta abar pentsa dezaten. Informazio hori mahai gainean jarri ondoren, proiektu zirriborro bat prestatzen dute, hurrengo saioan gizarte eragileari azaltzeko.
- 4) Laugarren saioa. Gizarte eragileekin biltzea.** "Proiektu iradokizuna" aurkezten da gizarte eragile bakoitzaren egoitzan. Iradokizun hori eragilearen ikuspuntuarekin alderatzen da, haren beharren arabera, haren ikuspegiarekin, pertsona edo talde onuradunen ezaugarriekin eta abar. Alderaketa hori egin ondoren, zerbitzu iradokizuna eguneratzen da.
- 5) Bosgarren saioa. Prototipatzea I.** Saio honen helburua zerbitzua diseinatzen hastea da. Plangintza zereginak, kronogramak eta giza baliabideen zein baliabide materialen kudeaketa zehazten dira. Saioaren amaieran, ikasleak gizarte

eragilearekin harremanetan jartzen dira posta elektronikoa edo telefono bidez, aurrerapenen berri emateko eta feed-backa jasotzeko.

- 6) **Seigarren saioa. Prototipatzea II.** Aurreko saioan lortutako prototipoa eguneratzen da gizarte eragileak emandako feedbackaren arabera. Prototipoa amaitu eta beharrezkoak diren kudeaketak egiteko unea da, dena prest egon dadin, eta, horrela, hurrengo saioan zerbitzua egiteko.
- 7) **Zazpigarren saioa. Zerbitzua gauzatzea.** Agian, ezin izango da saioen ordutegi arruntan egin; gizarte eragileek eta pertsona onuradunek ahal dutenean egin beharko da.
- 8) **Zortzigarren saioa. Modulua ebaluatzea eta ixtea.** Saio honetan, moduluari, proiektuari, norberari eta taldeari buruzko ebaluazioa egiten da. Ostean, proiektuak aurkezten dira, ziuhtagiriak banatzen dira eta itxiera ematen zaio.

Moduluan erabilitako metodologiak

- **Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza (Galeana, 2006):** Ikasteko metodologia honetan gai errealean gainean lan egiten da. Profil, diziplina, lanbide, hizkuntza eta kultura desberdinetako pertsonen osatutako taldeak egin eta batera lan eginez proiektuak gauzatzean eta arazo errealek konpontzean datza. Desberdintasun hauek ikasteko eta askotariko esparru orokor batean lan egiteko aukera bikainak eskaintzen dituzte.



5.go irudia: Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza.

- **Ikaskuntza-Zerbitzua (Martínez, 2008) eta (Battle, 2011):** Ikaskuntza-Zerbitzua proiektuetan oinarritutako ikaskuntza mota bat da; honen berezitasuna da proiektuak behar sozialak asetzera bideratuta daudela. Puntu honetan, beharrezkoa da gizarte erakunde eta eragile desberdinen lankidetzeta eta parte-hartzea. Ikasleen lana ekimen zibiko eta sozial bat bihurtzen da eta, beraz, ikaskuntza esperientzia aberastu egiten da, eta modu integralean garatzeko aukera ematen die. *Ikaskuntzak* eta *Zerbitzuak* lotura sinergikoa dute, baita sinbiotikoa ere. Alde batetik, ikaskuntzak hobetu egiten du komunitateari ematen zaion zerbitzua, izan ere, esku-hartze eraginkorrago bat ahalbidetzen du. Bestetik, eta aldi berean, zerbitzuak zentzua ematen dio ikaskuntzari.



6.go irudia: *Ikaskuntza-Zerbitzua.*

- **Design Thinking:** Gaur egun objektuak sortzeko erabiltzen den diseinu eta berrikuntza metodo bat da, baina hezkuntza eta gizarte arloetako zerbitzu eta esku-hartzeetarako ere balio du. Metodologia honek pertsoneri ematen die protagonismoa; bai diseinuan parte hartzen dutenei bai produktuaren edo zerbitzuaren etorkizuneko erabiltzaileei. Produktua edo zerbitzua diseinatzerakoan parte hartzen duten pertsonen lankidetzan jardun behar dute, hipotesiak proposatu eta frogatu behar dituzte, jarrera desberdinak integratu behar dituzte, erabiltzaileak kontuan hartu behar dituzte eta agertzen diren arazoei irtenbideak bilatu behar dizkiete.



7.go irudia: *Design Thinking metodologiaren faseak.*

Moduluaren ebaluazioa

Moduluaren baliagarritasuna eta ikaskuntza prozesua aztertzeko asmoz, moduluan jarraipenezko ebaluazioak eta ebaluazio mugarriak egingo dira. Mugarriei dagokionean honakoak bereizten dira:

| | NOIZ? | ZER? | NOLA? |
|---|----------|---|---|
| 1 | 3. Saioa | Erabiltzailea, gizarte eragilea eta erronka kontutan hartuz, era logiko batean informazioa bilatu, bildu eta bateratzeko gaitasuna. Marko teorikoa. | IKDkide bakoitzak aurkitutako informazioa aztertuz, irizpide batzuk betetzen dituen fitxa baten bitartez. |
| 2 | 4. Saioa | Egitasmo proposamena egokitzeko gaitasuna, gizarte eragilearekin izandako kontaktua eta elkarrizketa. | IKDkide bakoitzak topaketa edo bilera aztertuko du irizpideen arabera ebaluazio fitxa bat betez. |
| 3 | 7. Saioa | Diseinatutako zerbitzuaren gauzatze egokia. | Ikasleen parte-hartzea eta jokabidea behatuz eta erabiltzaile nahiz eragile sozialei elkarrizketak eginez. |
| 4 | 8. Saioa | Moduluan zehar eskuratutako ikaskuntza | Proiektuaren, norbanakoaren, taldearen eta moduluen auto-ebaluazio, ko-ebaluazio eta hetero-ebaluazio fitxak betez. |

7.2.2.2. Talde Sustatzailearen parte-hartzea

Moduluaz gain, IKD GAZtEk beste hainbat ekitaldi eta ekimenetan hartu zuen parte 2012/2013 ikasturtean. Azaroan Gipuzkoako Ikasle Kontseiluak antolatutako Ikasle Topaketetan IKD GAZtE proiektuari hedakuntza emanez Night lighting talken⁴ eta ikasle proiektuen kudeaketari eta garapenari buruzko Workshop bat dinamizatu zuen. Bestalde, Irakaskuntza Esperientzien Elkartrukerako Jardunaldietan⁵ parte hartu zuen, “IKD GAZtE, ekimen sena bultzatzen duen modula: ikasleen autogestio esperientzia bat” (2013) artikulua aurkeztuz. Oviedoko Unibertsitateko ikasleekin ere esperientziak partekatu zituzten⁶. Bartzelonan GUNIK (Global University Network for Innovation) maiatzean antolatutako “6th international Barcelona conference of higher education. Let`s build transformative knowledge to drive social change” jardunaldietan “Sense of Initiative Learning Modulo from Students to Students” posterra aurkeztu zen eta Bilbon “Aps Universidad-Comunidad, creando sinergias” jardunaldietan beste poster bat aurkeztu zen. Hilabete beranduago Madrilgo unibertsitatean “IKD GAZtE: autogestión, multidisciplinariedad y proyectos colaborativos para la adquisición del sentido de la iniciativa” (2013) artikulua aurkeztu zen “III Jornadas sobre la relación pedagógica en la universidad. Desdibujando fronteras, buscando puntos de encuentro” jardunaldietan. Alor internazionalari dagokionean, Talde Sustatzaileko kide bat Euskampusen 24 heures de l`innovation ekitaldian IKD GAZtEren lana aurkezteko aukera izan zuen eta beste kide bat Parisko “Salon des entrepreneurs” joateko aukera izan zuen, bi unibertsitateen arteko

⁴ IKD GAZtE Night lighting talk: (<http://gipuzkontseilua.org/ikasletopaketak/>)

⁵ IKD GAZtE: Irakaskuntza Esperientzien Elkartrukerako Jardunaldiak (<http://www.youtube.com/watch?v=P2rb-9WwXTw>)

⁶ IKD GAZtE: Oviedo Elkartrukea (<http://ikdgazte.wordpress.com/2012/12/18/esperientziak-elkartrukatzeko-topaketa/>)

esperientziak partekatuz. Horrez gain, GAZEk (Gazte Ekintzaile) argitaratutako Magazine aldizkarian eta Campusaren 82. Zenbakian “Modu sortzailean eta berritzailean ikasi” artikuluan atera zen.

7.2.3. 2013/2014 ikasturtea

2013/2014 ikasturteko azaroan IKD GAZtEk Leioan IKD Jendartea ekimenean “IKD GAZtE: Empoderamiento del alumnado dentro del marco IKD” komunikazioa aurkeztu zuen.

Ondoren, Talde Sustatzailea edo IKDkide taldea berreraiki zen, bost IKDkidetik zortzi IKDkidera igaroz. Bertan, hezkuntza kooperazio kontratu modalitateari esker, 8 praktika-kontratu sinatu dira, IKDkide taldea bost pertsonatik zortzi pertsonara igaroz. Lau kontratu mota ezberdinu dira profilaren arabera, berariazko funtzioekin eta denbora-dedikazio ezberdinekin, esperientziaren garapen egokiari erantzuteko. Ondorioz, foko hierarkikoaren arabera honako rolak ezberdinu dira:

- Ikasleen auto kudeaketarako koordinazio lanak.
- Esperientziaren transmisioa eta Talde Sustatzailearen koordinazio zereginak nahiz Talde Sustatzailearen berezko zereginak.
- Talde Sustatzailearen berariazko zereginak, hala nola, moduluko prestakuntza eta dinamizazioa eta proiektuaren zabalkuntza akademikoa eta gizarte zabalkuntza.
- Zeharkako zereginak, hala nola, sare sozialak, ebaluazioa eta moduluko taldeen arteko sare lana.



8.go irudia: 2013/2014 ikasturteko Talde Sustatzaileko kideak.

Talde Sustatzailean, lehenik eta behin, alor ezberdineko barne formazioa eta kanpo formazioa jaso zen urtarrila eta otsaila bitartean 13/14 edizioko moduluaren inplementazio eta dinamizazio lanak garatu ahal izateko. Barne formazioan IKD GAZtE proiektuaren funtzionamendua eta Talde Sustatzailearen papera zehaztu zen, talde lanean nola aritu eta Talde Sustatzailearen auto kudeaketa kolaboratzaileko tresnak erabaki ziren eta moduluari buruzko esperientzia pilotuaren antolakuntza, edukiak, ebaluazioa eta emaitzak landu ziren. Kanpo formazioari dagokionean, honako gai ezberdinen inguruko formazioa jaso zen:

- UPV/EHUko ikasleen ekimenak Gipuzkoako Kanpuseko Ikasle Kontseiluaren zuzendaria den Gorka Maiztegiarekin.
- IKD kolaboratiboen inguruan formazioa Focus Group metodologia erabiliz UPV/EHUko Automatika eta sistemen ingenieritza saileko adituak diren Oskari Casquero eta Jesus Romorekin.
- UPV/EHUko egitura eta kalitatearen inguruko formazioa UPV/EHUko Kalitate zuzendari den Alfonso Davalilloarekin.
- UPV/EHUko IKD hezkuntza ereduaren inguruko formazioa, Gipuzkoako Kanpuseko Hezkuntza Laguntza Zerbitzuko (SAE/HELAZ) koordinatzaile den Itziar Rekalde irakaslearen eskutik.
- Komunikazio eraginkorra, jendaurrean komunikatu eta proiektuen difusioari buruzko formazioa Begoña Hernandez UPV/EHUko ikasle ohiarekin.

Kurso honetako zeregin nagusia aurreko urteko modulua birdiseinatzea, aplikatzea eta ebaluatzea izan denez, iazko esperientzia pilotua aintzat hartuta, modulua birdiseinatzeari ekin zitzaion, moduluko saio ezberdinen edukiak eta dinamikak berrikusiz, egokituz eta gidoi berriak eginez. Bestalde, IKD GAZtE esku-hartze proiektuak gauzatzeko beharrezkoak ziren eragile sozialekin harremanetan jarri zen Talde Sustatzailea, hauen parte-hartzea eta erronken diseinuak definitzeko.

IKDkide kopuruak gora egitez aparte, moduluan parte hartu duten ikasle kopuruak, fakultate edo zentro kopuruak eta eragile sozialen kopuruak gora egin dute. 28 ikasle izatetik 41 ikasle izatera, 4 zentro edo fakultate izatetik zazpi zentro izatera (Pedagogia, Psikologia, Ingenieritza Informatikoa, Erizaintza, Ingenieritza Zibila, Zuzenbidea eta Kriminologia) eta 2 eragile sozial izatetik 5 eragile sozial izatera (Helduak Adi!, Erroak, Emakumeen Etxea, Tecnalia WIMI5 eta Goiener).

Moduluaz gain, IKD GAZtEko Talde Sustatzaileak IKD GAZtE proiektuaren hedakuntza eta zabalkunde ekintzak burutu ditu Gipuzkoako Kanpusean, dinamika aktiboak erabiliz eta ikasleen parte-hartzea suspertuz. Bestetik, Madrilgo

Unibertsitateko ApS jardunaldietan parte-hartze komunikazioa prestatu da eta bi IKDKide Madrila joango dira aurkeztera.



9.go irudia: 2013/2014 ikasturteko moduluan parte hartu duten ikasle eta eragile sozialak.

8. EMAITZAK

Emaitzak lehenengo, bigarrenko eta hirugarrenko eranskinetan ageri diren elkarrizketetan eskuratutako Talde Sustatzailearen, kolaboratzen duten eragile sozialen eta aurtengo Ekimen Sena bultzatzen duen Ikaskuntza Moduluan parte hartu duten ikasleen erantzunak biltzen ditu.

Talde Sustatzailea

Talde Sustatzailearen parte diren bi kideek IKD GAZtEn sartzearabaki zuten batez ere unibertsitate mailan aldaketa bat eragiteko gaitasunen jabe egiteko eta unibertsitateko komunitatean parte-hartze aktibo bat izateko, hau da, azken batean ikasle bezala merezitako protagonismoa eskuratzeko. Bi kide hauen arabera, beharrezkoa da ikasleriak bere ikaskuntza prozesuan parte-hartze aktibo nahiz autonomo bat izatea eta hezkuntza eredia hobetzeko helburuarekin eragile ezberdinekin lankidetzaren harremanak mantentzea, eta horretarako beharrezkoa da ekimen sena potentziatzea. IKDkideen arabera, IKD GAZtEn lan egiteak profesionalki eta pertsonalki garatzen zaitu eta bizitzarako beharrezko konpetentziekin hornitzen zaitu. Horrez gain, aipatzen dute IKD GAZtE proiektu berritzailea dela eta autogestioan oinarritutako proiektu errealak egiteko aukera eskaintzen duenez, proiektu motibagarria dela.

Bi kide hauen ustez, IKD GAZtEk dituen ezaugarri eta aldagai nagusiak honako hauek dira: lankidetzaren oinarritua, diziplinen arteko erlazioa, ahalduntzea, autogestioa eta errealitate sozialarekin harremana.

IKD GAZtEk egungo jendarteko erronken aurrean proposatzen dituen berrikuntzen inguruan galdetuta, adierazten dute proiektuaren bitartez ikasleriari hitza ematea lortzen dela eta horrek azken batean, ikaslea bizitzarako oinarritzkoak diren konpetentziez hornitzea ahalbidetzen duela. Bestalde, IKD GAZtEk eskaintzen duen beste berrikuntza garrantzitsu bat da diziplina ezberdinetako pertsonen proiektu komun bat egiteko aukera ematean datza eta horrez gain, eragile sozial ezberdinekin kontaktu zuzena mantentzea. Bestalde, IKD GAZtEk metodologia aktiboak eta dinamikoak erabiltzen ditu ikaskuntza lortzeko, dibertsioaren balio pedagogikoan sinesturik.

Beraien ustez, proiektu honen bitartez konpetentzia ugari lortzen dira, garrantzitsuenak Europar Batasunak giltzarritzat jotzen dituen ekimen sena, ikasten ikasi eta konpetentzia zibiko eta sozialak, baina hortaz gain, zeharkako konpetentziak ere eskuratzen direla diote, hala nola, taldean lan egitea, diseinatutako proiektu bat praktikan aplikatzea, sormena eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien erabilera.

Talde Sustatzailean nola lan egiten duten galdetu ostean, astean bizpahiru aldiz modu presentzial batean elkartzen direla aipatu dute eta ondoren, bakoitzak etxean presentziazkoak ez diren ordu kopuru jakin bat sartu beharra duela. Erabakiak denen

artean erabakitzen dira eta guztia eranskinetan ageri den bilera akta batean biltzen da. Bertan hartutako erabakiak, burutu beharreko lanak eta landutako gaiak ezartzen dira. Bi kidek koordinazioa lanak gauzatzeko dituzte, bost lagunek dinamizazio lanak burutzen dituzte eta beste batek hedakuntza eta ebaluazioa eramaten du aurrera. Koordinazioa burutzeko eta materiala kudeatzeko baliabide teknologiko ezberdinak erabiltzen ditugu, besteak beste, dropbox, google drive, skype, posta elektronikoa eta abar.

Talde Sustatzailearen parte diren bi pertsona hauen arabera, etengabeko formazioak funtsezko zutabea osatzen du, formazioaren bitartez eguneratua egotea ahalbidetzen duelako. Hauen ustez, IKD ereduak eskaintzen duen hezkuntza proposamenen ezagutzaren birziklapena ezinbestekoa da etengabeko eraldaketan murgilduta dagoen jendarteari aurre egiteko. Gainera, birziklapenak eguneratua egotea suposatzen du eta beraz, pertsona bezala erronkei aurre egiteko baliabidez blaitzea.

Bi IKDkide hauen ustez, IKD GAZtEk neurri batean eraldaketa soziala eragiten du eta hori batez ere, moduluaren bitartez lortzen du. Hauen ustez, eraldaketa soziala sustatzen du batetik unibertsitatearen eta inguru hurbilaren arteko zubiak eraikitzen dituelako eta eragile sozialak antzemandako beharretatik proposatutako erronkei aurre egiten diotelako ikasleek zuzenean. Praktiko den errealitate horretan ikasleriaren rola aldatzea lortzen da, beraien formazioan, unibertsitateko bizimoduan eta jendartearekin inplikaturik eta sentsibilizatuta dauden pertsonak trebatzen dituelako eta hauek formazio horren bitartez, errealitate sozial eta kulturean eragiten dutelako. Talde Sustatzaileko bi kide hauen ustez, ikaskuntza ulertzeko moduan ematen den salto kualitatibo horrek ikaskuntza esanguratsua errazten du eta ikaslea aktibatzen du, eraldaketa hezitzailea ekarriz unibertsitatera eta eraldaketa soziala sustatuz eragile sozialaren esparruan. Azpimarratzen dute IKD GAZtEk bereziki eraldaketa eremu hezitzailetik bultzatzen duela, tradizionala den unibertsitatearen egitura zaharkitutik guztiz berritzailea den eredu bat proposatzen duelako, ikasleria protagonista den espazio bat eskainiz eta barnean duen sormena, esperientzia eta ezagutza aplikatzeko aukera ematen dietelako, beraienak diren proiektuak autogestionatuz, diseinatuz eta praktikan ipiniz. Beraien iritziz, eraldaketa hezitzailea unibertsitate osoan zehar praktikan jartzea lortzen bada, Euskal Herriko testuinguru hurbileko eraldaketa soziala lortuko da. Izan ere, ikasleriak inizatiba baldin badu ekimenak martxan jartzeko beldurrik ez du izango eta beste profesionalen laguntza behar izango duenaren jakitun izango da. Horrek aldi berean komunitatearen zentzua indartzea eragiten du eta kolektibitatean eta inklusioan oinarritutako gizarte bat eraikitzea, hau da, denentzako unibertsitate bat sortuz. Hala eta guztiz ere, azpimarratzen dute eraldaketa hezitzailea eta eraldaketa soziala emateko beharrezkoa dela proiektuari lehenago ekitea eta horretan beharrezkoa dela finantziario iturriak lehenago lortzea.

Bukatzeko, aipatzen dute IKD GAZtE bezalako proiektuak zabaltzea oso garrantzitsua dela, eraginkorra den eta egungo gizarteko erronkei aurre egiteko alternatiba berritzaile bat eskaintzen duelako eta birziklapenean oinarritzen delako. Bestetik, azentua ikasleriarengan jartzen du eta bere asmoz ikasleria aktibatzea da, esnatzea, parte-hartzea. Baina horretarako, beraien ustez beharrezkoa da aitortza

handiagoa egitea bai Talde Sustatzaileko kideei, bai moduluan parte-hartzen duten ikasleei, baita proiektuari berari ere, ikasteko modu eraginkor eta berritzailea eskaintzen duelako IKD GAZtEk eta batez ere, ikasleriak duelako bere ikaskuntzaren aginte makila.

Eragile Sozialak

Elkarrizketatutako eragile sozialak Erroak eta Helduak Adi! erakundeak izan dira. Erroak Gizarte Zerbitzuen esparruan lan egiten duen irabazi asmorik gabeko erakundea da, gizarte desabantaila egoeran aurkitzen diren jendarteko kolektiboentzat ikastaroak eta ekintza formatzaileak burutzen. Helduak Adi! bestalde, erretiro aktiboaren aldeko apustua egiten duen Azpeiti, Azkoiti eta Zestoako elkarte bat da. Bi eragile sozial hauek bi urte daramatzate IKD GAZtErekin lankidetzan.

Erroak eta Helduak Adi! eragile sozialek IKD GAZtErekin kolaboratzea erabaki zuten unibertsitatea eta erakundearen arteko zubia eraikitzen hasteko, hau da, hasiera batean harremanik ez duten bi esparru elkartzeko. Interesgarria iruditzen zitzairen Ikaskuntza-Zerbitzua metodologiak eskaintzen duen trukea eta lotura. Horrez gain, egunerokotasuneko errutinatik irteteko eta ezberdina den jendearekin erlazionatu, komunikatzeko nahiz ikuspegi eta esperientziak partekatzeko ekimen egokia iruditzen zaiela aitortzen dute eta arrazoi hori dela eta, errepikatu dutela esperientzia.

Beraien ustez, IKD GAZtEk dituen ezaugarri nagusiak honakoak dira: esperientzien partekatzea, ekarpenen bitartez elkarrekin ikastea, ezberdinak diren eremuak elkartzeko era errealak diren proiektuak aplikatzea.

Bi eragile sozialek aipatu dute bi urteetan proposatu dituzten erronkei aurre egitea lortu dutela ekimenean parte hartu duten ikasleek eta azpimarratzen dute interesgarria izango litzatekeela zerbitzua denboran zehar luzatzea, eragin eta inpaktu handiagoa izan dezan.

Esperientzia honetatik gehien gustatzen zaiena esperientziak partekatzearena da, iruditzen zaielako komunitateak dituen beharrei erantzutea lortzen dela aurrera eramaten den komunikazio eraginkorraren bitartez. Bestalde, IKD GAZtEren bitartez interesgarriak diren lekuak eta proiektuak ezagutzeko aukera izan dutela plazaratu dute.

Beraien ustez, horrelako proiektu baten bitartez konpetentzia ugari lortzen dituzte ikasleek. Batetik, proiektu erreal bat diseinatu behar dutenez, horrek eskatzen dituen pauso eta urrats guztiak eraman behar dituzte aurrera. Bertan, koordinazioak oso leku garrantzitsua jokatzen du beraien ustez eta aldi berean, oso zaila izan ohi da. Bestetik, taldean lan egiten ikasten dutela aipatzen dute eta bizitzarako erronkei aurre egiteko ezinbesteko baldintza den enpatiaren gaitasuna eskuratzeko baliagarri suertatu ohi da.

IKD GAZtEko moduluan parte-hartzen duten koordinazioaren inguruan galdetuta, adierazten dute batzuetan koordinazio hori ez dela erraza izaten, egunerokotasuneko martxan bat-batean erantzuna eman beharreko egoera anitzak topatu ohi direlako. Gainera, batzuetan informazioa galdu egin ohi da informazioa igarotzeko ardura duen ordezkariak ez badu bere lana betetzen. Baina orokorrean azpimarratzen dute komunikazioa oparoa izan ohi dela. Moduluan zehar telefonoz, posta elektronikoz eta aurrez aurreko saioen bitartez eraman ohi dute etengabeko koordinazioa.

Erroak eta Helduak Adi! eragile sozialen iritziz IKD GAZtEk ez du bere osotasunean eraldaketa soziala eragiten, denboran zehar ez delako ekimena mantentzen, baina beraien ustez, oso bide onetik doan proiektua da eta proiektuaren zabalkuntza masiboki emango balitz eraldaketa soziala lortuko dute. Gizartea ez dago guztiz prestatua eraldaketa horretarako oraindik, jendeak beldurra duelako kolektibo jakin batzuetara hurbiltzeko, baina horrelako ekimenak inklusiorako bidea errazten dutela diote.

Bukatzeko, aipatzen dute horrelako proiektuak oso baliagarriak direla unibertsitatea eta bestelako esparruen arteko loturak sortzeko, ekarpenak partekatzeko eta elkar ikasteko.

Ikasle parte-hartzaileak

Ikasle parte-hartzaileei galdetzean zergatik apuntatu ziren Ekimen Sena bultzatzen duen Ikaskuntza Moduluan IKD GAZtEk zerbait desberdina eta aldi berean erakargarria eskaintzen zirela aipatzen dute. Horrez gain, diziplina ezberdineko jendearekin proiektu erreal batean lan egiteko aukera emateak apuntatzeko gogoia piztu zuela haiengan adierazten dute.

Ikasle parte-hartzaile hauen ustez, IKD GAZtEn kompetentzia ugari lantzen dira. Batetik, inizatiba edo ekimen sena sustatzen da, ikasleak erronka jakin bati erantzuteko baliabidez hornitu eta autogestioa kudeatzen ikasi behar dutelako. Bestetik, karreraren ikasitako ezagutzak praktikan jartzeko aukera eskaintzen denez, komunitatearekin harreman zuzena izatea bultzatzen zaitu eta hortaz, erlazionatzeko nahiz koordinatzeko kompetentziak eskuratzea. Bestalde, ikasleek arabera zeharkako kompetentziez jabetzea ahalbidetzen da moduaren bitartez, hala nola, diziplina ezberdineko jendearekin proiektu komun bat egitea, taldearen koordinazioa burutzeko tresnez baliatzea, ardura sustatzea, baliagarritasunean eta praktikotasunean oinarritzen den proiektuaren diseinua burutzea eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak garatzeko kompetentziak.

Bi pertsona hauek moduluan zehar alde zuzenetik ezagutzen ez ziren pertsonekin eta gainera diziplina ezberdineko pertsonekin lan egiteko garaian, garrantzi berezia izan du modulu hasieran egindako dinamikak, taldearen nortasuna sendotzeko baliagarriak suertatu zirelako. Hortik abiatuta, beraien ustez errazagoa izan zen talde multidiziplinarrean lan egitea. Astearen behin derrigorrezko saio presentzian lan egiten

zuten eta ondoren, astean behin elkartzen ziren norberak burututako bakarkako egitekoak bateratzeko. Koordinazioa Whatsapp eta posta elektronikoz bidez burutzen zuten eta aurkezpenak Power Point edo Prezi bidez gauzatzen zituzten. Bestetik, eragile sozialarekin ere etengabeko koordinazioa mantendu da, telefono bidez, posta elektronikoz bidez edota aurrez aurre.

Galdetzean ze ekintzekin lantzen diren ahalduntzea eta ekimen sena aipatu dute proiektuaren prestakuntza osoarekin, etengabeko prototipatzearekin, eragile sozialekin komunikazioa mantentzearekin, talde multidiziplinarretan lan egitearekin eta azken batean proiektua aplikatzearekin lortzen dela.

Elkarrizketan parte hartu duten bi ikasle hauen ustez, IKD GAZtEk eraldaketa soziala ez du bere osotasunean lortzen, Euskal Herriko Unibertsitatean ikasten duten ikasle kopurua aintzat hartzen bada, moduluan parte-hartzen duten ikasle kopurua oso txikia delako eta hori dela eta, ez dagoelako masa kopuru nahikoa eraldaketa soziala lortzeko. Beraien ustez, moduluaren bitartez eragile sozialak proposatutako eremuan aldaketa eragiten da, zubi positiboak eraikitzen dira unibertsitatearen eta errealitate sozialaren artean eta ikasleria bere ikaskuntzaren gidari bilakatzen da, baina diote modulutik at unibertsitateko hezkuntza sistemak bestelako egitura bat mantentzen dela orokorrean, eta bertan ikasleriak ez duela hautatzeko, autogestionatzeko, proiektu errealean lan egiteko eta inguru hurbilean eragiteko aukerarik. Beraien ustez, modulua baliabide bikaina da eraldaketa sozial hori sustatzeko, baina horretarako maila makro bateko aldaketak egitea beharrezkoa dela adierazten dute.

Bukatzeko, adierazten dute horrelako proiektuak oso baliagarriak direla ikasleria bere ikaskuntza prozesuaren protagonista bilakatzeko, normalean klase magistralekin eskuratzen ez diren kompetentziak eskuratzeko, metodologia berritzaile eta dinamikoekin ikasteko, jende berria ezagutzeko, diziplina ezberdineko ikasleekin lan egiten ikasteko eta azken batean, komunitatearekin harreman zuzena mantentzeko. Hortaz, beraien ustez oso gomendagarria da horrelako proiektuetan parte-hartzea eta eremu gehiagotara zabaltzea, azken batean errealitatearekin kontaktua mantentzen delako eta profesionalki etorkizun hurbil batean garatu beharreko kompetentzien jabe egitea posible giten duelako.

9. ONDORIOAK

IKD GAZtE proiektuko ibilbidearen deskribapen bat egin ondoren, hiru urteotan eraikitako material guztia ikertu ondoren eta proiektuan zuzenean parte hartu dutenen testigantzak edo lekukoak bildu ondoren, proiektuaren eraginkortasunaren eta baliagarritasunaren balioespen orokor bat egiteko ondorio batzuk ateratzea ezinbestekoa da.

Lehenik eta behin, esan beharra dago IKD GAZtEk unibertsitate mailako eraldaketa hezitzailean ekarpen handia egin dezakeela. IKD GAZtEk eredu berri baten aldeko apustua egiten du eta bere helburua eraginkortasunez kudeatzen doa. Egia da agian eraldaketa soziala ehuneko ehunetan lortu ez duela oraindik orain, baina inguru txikian edo esku hartu duen eremuetan eraldaketa hori lortzeko helburua du. Talde Sustatzaileko kideen, eragile sozialen eta ikasle parte-hartzaileen aburuz, IKD GAZtE bide onetik doa, baina oraindik asko dago egiteke eraldaketa soziala sustatzeko. Horretarako, beharrezkoa da mentalitate edo ikuspegi aldaketa bat jendarteko pertsonengan eta ondoren, aldaketa hezitzailea eraman behar da aurrera, baina ez soilik unibertsitatean, hezkuntza sistema osoan baizik. IKD GAZtE eraldaketa hezitzailean dago murgilduta eta ondorioztatzen da, eraldaketa hezitzailea bere osotasunean eta nahi duen dimentsioaren arabera ehuntzea lortzen badu, eraldaketa soziala bultzatuko duela etorkizun hurbil batean.

Bestetik, esan beharra dago IKD GAZtEk ikasleriaren ahalduntzea sustatzen duela bi lerro paraleloren ikuspegitik. Batetik, Talde Sustatzailearen gaitasunak kompetentzia bihurtzen ditu autogestionatuta proiektu baten etengabeko eraikuntzan murgilduta dagoelako eta ekimen senarekin lotuta formazio aktiboaren aldeko prozesua diseinatzen duelako. Bestetik, moduluan edo IKD GAZtEk aurrera eramaten dituzten ekintzetan parte-hartzen duten inizatiba sustatzen du, beraien ikasle bizian eta komunitate hurbilean aldaketa positiboak sortzeko helburuarekin. Gainera, IKD GAZtEk Talde Sustatzailea eratzeko prozesuan jarraikortasuna bermatzen du, IKD GAZtErekin parte-hartzen duten ikasleak direlako ondorengo Talde Sustatzailearen kide izango direnak. Beraz, hautagai eta formazio kate bat sortzen du.

Horrek guztiak ikasleria bere ikaskuntza prozesuaren protagonista izatea ahalbidetzen du, ikaskuntza prozesuari buruzko eta unibertsitateko bizimoduari buruzko erabaki hartzean inplikatzeko nahiz parte-hartze aktibo bat izateko gaitasunen eta ezagutzen eskurapena garatzea hain zuzen ere. Helburuak lortzen joaten diren heinean, ikasleriaren auto-estimua gora egiten du nabarmen moduluan zehar burututako ebaluazio fitxetan irakur daitekeen moduan, hau da, ikasleriaren aktibazio horren eraginez, ikasleria motibatu egiten da eta bere ikasketei zentzua hartzen diete. Motibazio horrek aldi berean arduraren zentzua ere garatzen du.

Ekintzailetasun horren bitartez ideiak ekintza bihurtzeko trebetasuna garatzen da IKD GAZtEk eskainitako espazioaren bitartez eta beraz, pentsamendu sortzaileak garatzea. Zergatik? Kontutan hartu behar ikasleriak egoera eta testuinguru erreal jakin

batean proposatutako erronkei aurre egiteko bideak eraiki behar dituelako. Proiektuaren bideragarritasun egokiena hautatzeko, bide anitzak proposatu behar izaten dituzte eta horrek sormena lantzea ekartzen du. Ekintzailetasunak baita ere autogestionatzen ikastea suposatzen du eta IKD GAZtEk puntu hori maisutasunez eramaten du praktikara, ikasleriak diseinatzen dutelako bai IKD GAZtE proiektua baita ekimenean parte-hartzen duten ikasleek diseinatzen diren ekintzak ere.

Sormen hori potentziatzeko, IKD GAZtEk metodologia aktiboak eta dinamikoak erabiltzen ditu, ikaskuntza dibertigarritasunarekin bat doala helarazi nahirik. Dibertigarritasunaren bitartez, ikaskuntza esanguratsua eta eramangarria bermatzen da eta zaharkituak dauden ikaskuntza-irakaskuntza metodoak atzean uzten ditu. Aipagarriak dira Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza, Ikaskuntza-Zerbitzua eta Design Thinking metodologiak. Hiru metodologia hauen bitartez ikasleek proiektu errealak diziplina anitzeko taldeetan planifikatzeko, aplikatzeko eta ebaluatzeko aukera ematen dute, ikaskuntza adierazgarri eta motibagarri eginez eta ikasleria bere ikaskuntzaren protagonista bilakatuz. Aipamen berezia merezi du Ikaskuntza-Zerbitzua metodologia pedagogikoak, ikasleek beharrari aurre egiteko beharrezko ezagutzak artikulatu behar dituztelako eta gaitasun horiek komunitateari egindako zerbitzu baten bitartez garatzen direlako. Bertan, komunitatearen eta unibertsitatearen arteko sareak eta harremanak eraikitzeaz gain, ikasleriak zentzu bat harrapatzen dio bere formazioari. Bestetik, Design Thinking metodologiaren bitartez, ikasleriaren sormena potentziatzen dela ondorioztatzen da, parte-hartzaileek aktiboki parte-hartzen dutelako prototipo baten inguruan. Horrez gain, prototipo hori etengabe berraztertzen eta eguneratzen doanez, XXI. mendeko erronkei aurre egitea lortzea ahalbidetzen denez, eraldaketa sozialaren kontzeptura hurbiltzen den metodologia dela ikus liteke.

IKD GAZtEk komunitatearekin erlazio zuzen bat mantentzea ahalbidetzen du, unibertsitatea inguruko errealitate sozialarekin kontaktuan jartzea hain zuzen ere. Errealitate sozialarekin kontaktuan jartzeak egungo egoeraren inguruko diagnostiko bat egitea suposatzen du. IKD GAZtEk diagnostiko hori burutzeko ikasleriarengan enpatia sentimendua garatzen du, kontziente delako egungo erronkei aurre egiteko kontzientziazioak eta sentsibilizazioak garrantzi handia duela. IKD GAZtEk eragile sozial anitz eta ezberdinekin lan egiten du, lankidetzaren harremanak mantenduz eta erabiltzaile mota ezberdinekin komunikatuz

Horrez gain, IKD GAZtEk etengabeko formazioaren aldeko apustua egiten du, jakin badakielako egungo mundua etengabeko eraldaketan murgildua dagoela eta beraz, gizabanako bezala eta batez ere ikasle bezala dagoen erronka nagusia ezagupenaren birziklapena dela. Horrekin lotuta, IKD GAZtEk berrelikapena aintzat hartuta lan egiten du, etengabeko prototipatze batean, ahalik eta hobekien egokitzeko ziurgabetasun egoeran aurkitzen den jendartearen barnean.

Garrantzi berezia hartzen duen puntua, unibertsitate mailan eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan ematen den irakasleriarengan eta ikasleriarengan ematen den

rol aldaketa. IKD GAZtE ekimenaren bitartez irakasle eta ikasle artean lankidetzaren harremanak mantentzea ahalbidetzen da. Jada irakaslea ez da edukiaren transmisore, bideratzaile eta bitartekari baizik, ikasleriak barnean duen potentzialtasuna garatzeko bidea irekitzen duena. Irakasleak ikasleak ikerlari izatera bideratu behar ditu, beren kaxa aurkitu dezaten ikaskuntza. Ikaslea subjektu pasibo izatetik aktibo izatera igarotzen da. Eredu honen arabera, ikuspegi tradizionala atzean uzten da eredu dialogikoari bidea zabaltzen zaio, unibertsitate osatzen duten eragileen arteko hierarkia ezabatuz eta horizontaltasunari garrantzia emanez. Eredu dialogikoan ikasleei ahotsa ematen zaie eta beraien autonomia potentziatzen da, gaitasunak indartuz eta aldi berean, trebetasun horiek konpetentzia bilakatuz. Ikaslea aurre-ezagutzak eta esperientzia duen subjektutzat jotzen da eta beraz, denek denengatik ikas dezaketela bultzatzen da, lankidetzaren azentua jarritz. Lankidetzaren bitartez elkarrekin lan egiteko aukera ematen zaie unibertsitatea osatzen dute eragile guztiei eta IKD GAZtErekin parte-hartzen duten eragile sozialei.

IKD GAZtEk bereziki Europar Batasunak (2006) proposatutako Ikaskuntza Iraunkorrerako Giltzarriak diren hiru konpetentziaren alde lan egiten duela ondorioztatzen da, hain zuzen, ekimen sena, ikasten ikasi eta konpetentzia zibiko eta hiritartasunezkoak.

Batetik, ekimen senari dagokionean IKD GAZtEn parte-hartzen duten ikasleek ideiak ekintza edo proiektu bilakatzeko gaitasuna eskuratzen dute, proiektuak autogestionatzen dituztelako eta errealitatean aplikatzen dituztelako. Proiektuak autogestionatzeak taldean lan egiten ikastea, berrikuntzarekin eta arriskuak hartzearekin dauka lotura, baita helburuak lortzeko, planifikatzeko eta kudeatzeko gaitasunarekin ere. Ikasleek balio etikoen gaineko kontzientziarioa garatu behar dute proiektua zuzendu behar duten erabiltzaileekin enpatizatuz eta hori bideratzeko gobernantza zuzena sustatu behar dute.

Bestetik, ikasten ikasi metodologiari dagokionean ikasleek ezaguera eta gaitasun berriak eskuratzen dituzte, proiektua nola prozesatu ikasten dutelako eta hori aurrera eramateko orientazioak bilatu nahiz gaitasunak modu egokian kudeatu behar dituztelako. Hortaz, moduluak ikasleari bere bizitzako esperientzietan eta egin dituen ikaskuntzetan oinarritzeko aukera ematen diete, ezagutza eta gaitasun berriak erabiltzeko eta aplikatzeko.

Konpetentziekin amaitzeko, gaitasun sozial eta hiritarrak azpimarratu behar dira. Ikasleek moduluan gizarte eragileekin lankidetzaren jardun behar dute lanean eta horretarako aktiboki eta demokratikoki parte-hartzeko konpromisoa hartu behar dute.

Horrez gain, eredu honek espazio aldaketa baten beharra ikusi eta sustatzen du, arkitektonikoki finkoa eta teknika memoristikoa oinarritutako gune batetik, irekia, malgua eta erreala den testuinguru anitzetara igaroz.

Gune aldaketa horrek interaktiboak diren eta talde lanean lan egiteko lekuak ahalbidetzea suposatzen du eta IKD GAZtEk horretarako, gune ezberdinak jarri ditu eskuragarri.

Beste ezaugarri garrantzitsu bat interdiziplinarietatearena da. IKD GAZtE diziplina anitzeko kidez osatuta dago eta globaltasunari erantzuteko bide bakarra dela uste du. Interdiziplinarietatearen bitartez planteatutako erronkari ikuspuntu ezberdinak uztartuz erantzun global bat ematea ahalbidetzen da, ikasleei lankidetzan jarduteko espazio bat eskainiz. Denbora ugari eskatzen badu ere, errealitatearekin bat egiten duen ikuspegiari erantzutea lortzen du. Atdatza kalakan, dialogoan, berriketetan eta adostasun guneetan bilatzen du eta horretarako baliabideak jartzen ditu eskuragarri, hala nola, baliabide informatiko eta teknologikoak eta baliabide analogikoak.

IKD GAZtEko Talde Sustatzaileak hedakuntza eta difusioari men egiteko, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berritzaileak erabiltzen ditu eta bere hedakuntza guztia eleanitza aintzat hartuz eramaten du aurrera.

Hala eta guztiz ere, kontutan hartu beharra dago IKD GAZtE IKD ereduaren barnean kokatzen den proiektu bat dela eta horrek instituziopean garatzen den proiektu bat islatzen duela. IKD GAZtEren helburua ikasleriaren ahalduztzea sustatzea bada ere, unibertsitatearen boterea duen erakundeen menpe kokatzen da eta horrek unibertsitatearen ikuspegia erreproduzitzea eragin dezake, hau da, IKD GAZtE ikasleriak kudeatzen duen proiektua bada ere autogestionatzeko boterea mugatuta geratzen da. Kontutan hartu beharra dago finantziario iturriak Gipuzkoako Foru Aldunditik eta Euskal Herriko Unibertsitateetik eratortzen direla eta IKD GAZtEk beraz, bi erakunde hauen nahiak errespetatu behar dituela hein handi batean. Hortaz, ahalduztzea neurri handi batean garatzen bada ere, ez da ehuneko ehunetan sustatzea lortzen. IKD GAZtEk egiten duen guztia justifikatu behar du eta baldintza horrek autogestioa mugatzen du. Aldi berean, lotura horrek proiektuaren bideragarritasuna baldintzatzen du. Kontutan hartu beharra dago proiektua oso berandu onartzen dela eta horrek ekiteko denbora asko murrizten duela. Zer eragiten du horrek? IKD GAZtE “Moduluzentrista” izatea eta bere filosofiaren ezaugarri batzuk baztertzea edo behar bezala ez garatzea.

Honekin lotutan, IKD GAZtEren eta unibertsitateak bikaintasuna ulertzeko moduaren artean talka bat dagoela sumatzen da. Unibertsitateak bikaintasuna eta kalitatea irizpideak Bolognako itunak proposatutako ekintza lerroen pean ulertzen ditu, hau da, lehiakortasunean eta IKD GAZtEk hain zuzen ere aurkakoa sustatu nahi du, berdintasuna eta guztien arteko ikaskuntza nahiz lankidetzatza. IKD GAZtE lehiakortasuna ez da bere filosofiaren hiztegian txertatzen, askatasuna, dinamikoa, etikoa eta erreala bezalako balioak dituelako oinarri. Gainera, ikusten dugu errealitatean unibertsitateak lehiaren ideari men eginez, ebaluazio sumatiboa potentziazten duela nagusiki eta IKD GAZtEk aldiz, ebaluazio formatiboa eta auto-ebaluazioa bultzatzen ditu, ikasleren ahotsa delako proiektuaren gidari nagusia.

10. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

IKD GAZtE eraldaketa hezitzailetik testuinguru hurbileko inguru zehatzetan eraldaketa soziala sustatzen duen proiektua dela ondorioztatu ondoren, eraldaketa sozial horren txertatzean edo bizkortzea hobetu dezakeen hobekuntza proposamen batzuk egitea garrantzitsua izan daiteke, batez ere, proiektuaren eraginkortasun maila handitzeko.

Moduluari dagokionean, lehen proposamena termino baten kontzeptu aldaketa egitearen beharretik sortzen zait. IKD GAZtEtik moduluan era multidiziplinarrean lan egiten dela adierazten da, hau da, diziplina ezberdinen artean ematen den elkar-jartzetik. Terminologiari eta haren esanahiari erreparatzen badiogu horrek zera adierazten du, diziplina bakoitza independentea dela eta bata besteari gehitzen zaiola. IKD GAZtEtik diseinatutako moduluan zentratzen bagara, kontzeptu hori guztiz gaindituta dagoela argi geratzen da. Are gehiago, interdiziplinarietate kontzeptua ere zaharkituta geratzen da IKD GAZtEren praktikotasunaren kasuan. Interdiziplinarietateak diziplinen artean ematen den interakzioa adierazten du, diziplina bakoitzak norberaren eskema kontzeptualetatik abiatuta bere ikuspuntua edo ekarpena eskaintzen duenean ematen da. IKD GAZtEn ez da soilik diziplina ezberdinen arteko interakzioa ematen, diziplinen arteko batasuna ematen baita. Izan ere, diziplina anitzetako ikasleek erronka jakin bati erantzuteko lan egiten dute, diziplinen arteko lotura, kontaktua eta kooperazio edo lankidetzak agerian utziz eta multzo bakarra osatuz batasun printzipiotik. Hortaz, hemendik aurrera erabili beharreko termino egokia transdiziplinarietatearena litzateke, Cesare Scuratiren (1991) definizioetara moldatuz.

Bestalde, ikusi dugu IKD GAZtEk eraldaketa soziala duela helburu, baina hori neurri txiki batean lortzen duela, esku-hartzen den testuinguru hurbil eta espezifikoko batean hain zuzen ere. Eraldaketa soziala esparru zabalera zabaltzeko, proiektuari hedakuntza handiagoa ematea behar beharrezkoa da eta hastapeneko hiru urteotan proiektuak izan dituen emaitza positibo eta eraikitzaileak bide gehiago erabiliz argitara ematea. Horretarako, Talde Sustatzailearen taldea kopuru aldetik handitzea ezinbestekoa litzateke eta horrez gain, Bizkaiako eta Arabako Kanpusetara zabaltzea IKD GAZtEk egiten duen eraldaketa hezitzailearen eskaintza.

Horrekin lotuta, UPV/EHU berritzailea den eta bikaintasun irizpideak betetzen dituen unibertsitatea izatea lortu nahi bada, egungo errealitatea sozialari erantzun beharra zaio eta hori soilik lortu daiteke, ikasleriari hitza ematen bazaio. IKD GAZtEk lehen urtean diagnostiko tailerrak egin zituen eta bertan ateratako beharretik modulua sortu eta aplikatu zen. Orain, dituen onurak ebaluatuta, beharrezkoa da proiektua eta modulua bera zabaltzea. Horretarako, inplikaturik eta sentsibilizatuta dauden fakultate, eskola eta irakasleen laguntza behar dugu. IKD GAZtEtik sentsibilizazio eta kanpaina lan handiagoa litzateke erronka, IKD GAZtE proiektuari buruzko formazioa eskainiz irakasle, ikerlari eta bestelako eragileei. Horrela lortuko genuke IKD GAZtEk IKD eredia osatzen duen garapen profesionalaren atalari ere ekitea. Baina aipatu berri

ditudan eragileek ere badute zeregina. Hasteko, kurrikularki aitortza handiagoa lortu beharko litzateke eta denborarekin horrelako metodologia gradu guztietan txertatzea. Zergatik? Jakinarazi behar zaie karrera amaitzean aurkituko duten errealitate laborala eta soziala horrelakoa izango dela eta beraz, unibertsitateak kompetentzia horiek garatu behar dituela ezinbestean.

Oraindik orain karrera guztietan horrelako metodologiak txertatzea zaila denez, helburu xumeak planteatu beharko ditugu. Horien artean, moduluan parte-hartzen duten eragile sozial kopurua eta aniztasun handiagoa lortzea litzateke erronka, nahi, interes eta egoera ezberdinak artatzeko aukera egon dadin eta komunitateko sektore ezberdinekin harremana mantendu dadin. Honekin lotuta, IKD GAZtErekin lankidetzan harremanak mantentzen dituzten eragile sozialen banku bat egitea interesgarria litzateke eta hauei nolabaiteko aitortza egitea bikaintasunari egiten dioten ekarpena eskertuz.

Bestalde, ikusi dugu moduluak denbora aldetik dituen mugak eta zailtasunak direla eta, moduluaren diseinuak ez duela uzten ikasleria ehuneko ehunean autogestionatzen. Puntu honetan proposatzen dudana hobekuntza honakoa da: Behin ikasle parte-hartzaileak modulua gauzatu ondoren, eragile sozial berriekin kontaktua egitea eta batez ere erantzun beharreko erronka eragile sozialekin adostea, horrela Design Thinking metodologiaren urrats guztiak bete ditzaten. Kontaktua hasieran egin beharrean, prozesuaren amaieran egingo lukete eta horrek datozen urteetan parte hartuko duten ikasleentzako baliagarria suertatuko da. Horrela, ikasleriaren artean kate bat sortzea lortuko da eta gainera, moduluaren diseinuan eragiteko aukera izango dute.

Artatzea deritzoten beste gai bat hizkuntzarena da. Izan ere, IKD GAZtEtik eleaniztasunaren alde egiten saiatzen baldin bagara ere, errealitatean ikusten dugu azkenean gaztelarak euskara gainditzen duela, bereziki moduluan. Kontutan hartu beharra daukagu moduluan karrera eta hizkuntza ezberdineko pertsonen parte-hartzen dutela eta talde multidiziplinarrak osatu ondoren, kasu gehienetan gaztelaraz lan egin beharrean aurkitzen direla taldeak, beti badagoelako norbait euskaraz hitz egiten ez dakiena edo hitz egin nahi ez duela. Aurten programa informatiko baten laguntzarekin, talde oso batek euskaraz funtzionatzea lortu dugu, baina euskarari pisu handiagoa emateko bideak jarri beharko ditugu martxan.

Aplikazioa interesgarria deritzoten beste alderdi bat Talde Sustatzaileko kideen testigantzaaren erreleboa ikasturte amaieran ematea da, ikasturte hasieran beharrean. Kontutan hartzekoa da ikasleriak autogestionatzen duen proiektu bat dela eta ikasleak etengabeko joan etorrian daudela, proiektuaren puntu ahulenetako bat agerian utziz. Erreleboa ikasturte hasieran emanez gero, esperientzia indibidualak eta taldekoak sakabanatu egiten dira, ez dira kapitalizatzen. Ikasleriaren ezagutza gal ez dadin, lekukoa eta beraz kide berrien formazioa kurtso amaieran eman behar da ezinbestean.

Azken proposamena IKD GAZtE gida bat sortzea izango litzakete, hau da, Talde Sustatzailearen kide berriek proiektuan murgiltzen direnean IKD GAZtEk nola funtzionatzen duen azaltzen duen gida teoriko-praktiko bat sortzea, ezagutza gal ez dadin azken batean eta proiektuan murgiltzen direnak nondik nora jo jakin dezaten.

11. BIBLIOGRAFIA

- Andrés Rubia, F. (2013). La LOMCE, una ley que apuesta por las desigualdades sociales. *Revista digital de FEAE*, 7, 23-29.
- Apple, M. (1987). *Educación y poder*. Madrid: Paidós.
- Aramendi, P. (2012). *Programen planifikazioa*. Donostia: Fotocopias Zorroaga.
- Barrio de la Puente J, L. (2005). La transformación educativa y social en las comunidades de aprendizaje. *Teoría de la educación*, 17, 129-156.
- Batlle, R. (2011). ¿De qué hablamos cuando hablamos de aprendizaje-servicio? *Crítica*, 61, 49-54.
- Bauman, Z. (2005). *Modernidad líquida*. Fondo de Cultura Económica: Argentina.
- Bordas, M. I., eta Cabrera, F. A. (2001). Estrategias de evaluación de los aprendizajes centrados en el proceso. *Revista española de pedagogía*, 218, 25-48.
- Castells, M. (1997). *La era de la información. La sociedad red*. Madrid: Alianza.
- Castro, J., Barrenechea, J., eta Ibarra, A. (2011). Cultura emprendedora y competencias: la experiencia del Programa GAZE. 27-45. Servicio editorial de la Universidad del País Vasco.
- Chomsky, C., eta Ramonet, I. (1995). *Cómo nos venden la moto*. Barcelona: Icaria.
- Colmenares, A. (2008). Evaluación formadora: una perspectiva de investigación-acción para la formación del profesorado de entornos virtuales de aprendizaje (Doctoral dissertation, tesis doctoral, UPEL-IPB).
- Díaz Moreno, V. (2012). Tendencias en el movimiento altermundialista: exclusión juvenil y políticas globales. Doktore-tesia. Universidad Nacional de Educación a Distancia.
- Fermoso, P. (1997). *Manual de economía de la educación*. Madrid: Narcea.
- Froni, N. (2011). *Eraldaketa-prozesuak: zer, zertarako, nork, nola...* Donostia: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Freire, P. (1970). *Pedagogía del oprimido*. Madrid: Siglo XXI.
- Freire, P. (1979). *La educación como práctica de la libertad*. Madrid: Siglo XXI.
- Freire, P. (1997). *Pedagogía de la autonomía*. Madrid: Siglo XXI.

- Galeana, L. (2006). Aprendizaje basado en Proyectos. Revista electrónica, CEUPROMED. Consultado el 20 de diciembre de 2012: <http://ceupromed.ucol.mx/revista/PdfArt/1/27.pdf>.
- Giroux, H. (1983). *Theory and resistance in education*. London: Heinemann.
- Held, D. (2003). *Globalización/Antiglobalización. Sobre la reconstrucción del orden mundial*. Barcelona: Paidós.
- Hessel, E. (2010). *Haserretu zaitetze!*. Berriozar: Denon artean.
- Huegun, A. (2012/2013). *Gizarte eta kultura dinamizazioa apunteak*. UPV/EHU.
- Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación. *BOE*, 106.
- Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre, para la mejorar de la calidad educativa. *BOE*, 295.
- López Muñoz, L. (2004). La motivación en el aula. *Pulso*, 27, 95-107.
- Luque, B., Subiza, M., Irazabal, G., Suárez, M., eta Barrenechea, J. (2013). IKD GAZTE, ekimen sena bultzatzen duen modulua: ikasleen autogestio esperientzia bat. *IEEJ*.
- Luque, B., Subiza, M., Irazabal, G., Suárez, M., eta Calderón, O. (2014). IKD GAZTE: autogestión, multidisciplinariedad y proyectos colaborativos para la adquisición del sentido de la iniciativa. *Tendencias Pedagógicas*, 23, 127-140.
- Martínez, M., Esteban Bara, F., eta Buxarrais Estrada, M. R. (2002). La universidad como espacio de aprendizaje ético. *Revista Iberoamericana de educación*, 29, 17-44.
- Martínez, M. (2008). Aprendizaje servicio y construcción de ciudadanía activa en la universidad: la dimensión social y cívica de los aprendizajes académicos. *Aprendizaje servicio y la responsabilidad social de las universidades*, 11-26.
- Marx, K., eta Engels, F. (1978). *Textos sobre educación y enseñanza*. Madrid: Comunicación.
- Merton, R. K. (1948). The self-fulfilling prophecy. *Antioch Review*, 8, 193-210.
- Mochón, F. (1995). *Economía básica*. Madrid: MacGraw-Hill.
- Rekalde, I. (2011). La universidad ante el desafío de la enseñanza por competencias y el aprendizaje cooperativo. 47-60. Servicio editorial de la Universidad del País Vasco.
- Scurati, C. (1991). Identidad y prospectiva de la educación extraescolar. *Iniciativas sociales en educación informal*, 84, 62-77.

- Smith, A. (2012). *La riqueza de las naciones*. México: Fondo de Cultura Económica.
- Tapia, M. N. (2008). Calidad académica y responsabilidad social: el aprendizaje servicio como puente entre dos culturas universitarias. *Aprendizaje servicio y la responsabilidad social de las universidades*, 27-56.
- Unión Europea (2006). Recomendación del Parlamento Europeo y del Consejo de 18 de diciembre de 2006 sobre las competencias clave para el aprendizaje permanente. Diario Oficial de la Unión Europea, L 394/10, ES.
- Vega Gil, L. (2005). Los sistemas educativos europeos y la formación de profesores. Los casos de Francia, Reino Unido, España y Finlandia. *Revista de educación*, 336, 169-187.
- Vilches Peña, A., eta Gil Pérez, D. (2010). El programa PISA: un instrumento para la mejora del proceso de enseñanza-aprendizaje. *Revista Iberoamericana de educación*, 53, 121-154.
- Weber, M. (2009). *La ética protestante y el espíritu del capitalismo*. Madrid: Alianza.

Erreferentzia elektronikoak

<http://www.ikasketa-berrikuntza.ehu.es/p272-shikdhm/es/>

<http://www.igipuzkoa.net/>

http://www.youtube.com/watch?v=vp_rSCPGM9o

<http://www.youtube.com/watch?v=DUhMBo6weLg>

<http://gipuzkontseilua.org/ikasletopaketak/>

<http://ikdgazte.wordpress.com/2012/12/01/ikasle-topaketak-2012-12-01/>

<http://www.youtube.com/watch?v=P2rb-9WwXTw>

<http://ikdgazte.wordpress.com/2012/12/18/esperientziak-elkartrukatzeko-topaketa/>

12. ERANSKINAK

12.1. Talde Sustatzaileko kideei egindako elkarrizketa

1. Zergatik erabaki zenuen IKD GAZtEn sartzea?
2. Ze ezaugarri eta aldagai dituela iruditzen zaizu IKD GAZtEk?
3. Ze berrikuntza proposatzen ditu IKD GAZtEk egungo jendarteko erronken aurrean?
4. Ze kompetentzia lortzen dira proiektu honen bidez?
5. Nola egiten duzue lan Talde Sustatzailean?
6. Ze garrantzi hartzen du etengabeko formazioak zure ustez hezkuntza eredu berri honetan?
7. Uste duzu IKD GAZtEk eraldaketa soziala eragiten duela? Hala bada, zergatik?
8. Zergatik da garrantzitsua horrelako proiektuak zabaltzea eta praktikan jartzea?

12.2. Eragile sozialei egindako elkarrizketa

1. Zergatik erabaki zenuen IKD GAZtE ekimenarekin kolaboratzea?
2. Ze ezaugarri eta aldagai dituela iruditzen zaizu dituela IKD GAZtEk?
3. IKD GAZtEk proposatzen dituzuen erronkei aurre egitea lortzen duela iruditzen zaizue?
4. Zer da esperientzia honetatik gehien gustatu zaizuna?
5. Ze kompetentzia lortzen direla iruditzen zaizu horrelako proiektu baten bitartez?
6. Nola koordinatzen zarete IKD GAZtEn parte-hartzen dutenekin?
7. Uste duzu IKD GAZtEk eraldaketa soziala eragiten duela? Hala bada, zergatik?
8. Uste duzu mota honetako proiektuak baliagarriak direla? Hala bada, zergatik da garrantzitsua horrelako proiektuak zabaltzea eta praktikan jartzea?

12.3. Moduluan parte hartu duten ikasleei egindako elkarrizketa

1. Zergatik apuntatu zinen Ekimen Sena bultzatzen duen Ikaskuntza Modulura?
2. Ze konpetentziak eskuratu dituzula uste duzu?
3. Nola egin duzue lan talde multidiziplinarretan? Nola joan da koordinazioa?
4. Ze ekintzekin lantzen dira zure ustez ahalduntzea eta ekimen sena?
5. Uste duzu IKD GAZtEk eraldaketa soziala eragiten duela? Hala bada, zergatik?
6. Uste duzu mota honetako proiektuak baliagarriak direla? Hala bada, zergatik da garrantzitsua horrelako proiektuak zabaltzea eta praktikan jartzea?

12.4. IKD GAZtEren material grafikoaren adibide batzuk





IKD GAZTE

Proyectos multidisciplinares de carácter social para el desarrollo del Sentido de la Iniciativa; una experiencia de autogestión.



Introducción

El proyecto IKD GAZTE tiene como principal objetivo promover el empoderamiento del estudiantado en el proceso de implantación de metodologías de aprendizaje activo en la UPV/EHU. Todo esto se lleva adelante dentro del marco del modelo de desarrollo curricular propio IKD (Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoa).

En su primer año, principalmente se hicieron labores de sensibilización y talleres de diagnóstico de la vida estudiantil en la universidad. Se llevó a cabo en el campus de Gipuzkoa de la UPV/EHU. Tras analizar los resultados, se acordó que una manera de encauzar la acción del alumnado para cubrir las necesidades identificadas podía ser diseñar un módulo de aprendizaje en el sentido de la iniciativa autogestionado por el alumnado.

Irazabal, Goiatz; Luque, Borja; Subiza, Mikel; Suarez, Maddi; Calderón, Oihane; Barrenechea, Julieta;
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA (UPV/EHU)
 Contacto: gazte.ikd@gmail.com

Descripción general

El objetivo del módulo es fomentar el sentido de la iniciativa y la autonomía del alumnado de la UPV/EHU para así también sensibilizarles en el marco de la implantación del modelo de enseñanza-aprendizaje IKD. Para un buen desarrollo de este marco es necesario que los estudiantes tomen el centro del escenario y que sean responsables de su aprendizaje. IKD GAZTE ha apostado por conseguirlo a partir de fomentar la autogestión de proyectos de interés social.

Entre las principales características se encuentran la colaboración, multidisciplinariedad, autogestión y el carácter social y cívico.

La metodología se basa en tres enfoques: el aprendizaje basado en proyectos, aprendizaje-servicio y design thinking.

El módulo piloto se ha realizado durante 8 sesiones de 3 horas presenciales, acompañadas de 26 horas no presenciales, sumando así un total de 50 horas (2 CTS que se han incurrido curricularmente).

Aprendizajes

En este proyecto se distinguen dos niveles de aprendizajes y se destaca el ejercicio de competencias para cada uno de ellos:

Intensivo: el que ha realizado el alumnado que forma parte del proyecto y que ha tomado parte en el diseño, implementación, dinamización y evaluación del módulo. Las competencias que destacan para este grupo son la autogestión y la autonomía para desarrollar un proyecto institucional colaborativo.

FOCALIZADO: el que ha realizado el alumnado que ha participado en el módulo. Las competencias vinculadas con el Sentido de la Iniciativa que más se han trabajado son: trabajo en equipo multidisciplinar, transformación de ideas en proyectos, comunicación eficaz, vinculación con agentes y problemas reales del entorno.

Participantes

Para llevar adelante el módulo piloto se implicaron 4 centros universitarios y 2 agentes sociales del entorno periuniversitario.

En esta primera experiencia han participado un total de 28 alumnos y alumnas de Ingeniería Informática, Educación Social, Enfermería y Psicología de UPV/EHU.



En cuanto a los agentes sociales, se ha trabajado con Helduak Adil, una asociación de personas de la tercera edad que trabaja por el envejecimiento activo, y con Erroak, entidad sin ánimo de lucro que trabaja con colectivos desfavorecidos.

Necesidades (N) y Servicios (S)

Las necesidades planteadas fueron 4, dos de cada agente social.

HELDUAK ADIL (envejecimiento activo)

N: Descubrir las necesidades de los miembros de tres hogares de jubilados de Gipuzkoa y elaboración de informe de necesidades y propuestas.

S: Taller diagnóstico, dinámico y creativo.

N: Hacer un diagnóstico de las necesidades de los/las jubilados/as que no acuden a los hogares de jubilados de Azpeitia, Azkoitia y Zestoa y sus motivos.

S: Actividad en la calle para entrevistar a jubilados/as y gente de otras edades, y rellenar una encuesta.

ERROAK (capacitación laboral e integración social)

N: Dar a conocer a las usuarias de Erroak La Casa de las Mujeres.

S: Grabación y exposición de un video informativo sobre La Casa de las Mujeres. Diferentes actividades con el fin de darles a conocer los servicios que ofrecen y para saber lo que les gustaría que se hiciera.

N: Integrar a los usuarios de Erroak en actividades de la vida cotidiana.

S: Plantear una serie de actividades por la ciudad, e informar sobre servicios públicos, ofertas, etc.

Análisis de resultados

Ha sido una experiencia muy positiva y enriquecedora tanto para los dinamizadores y las dinamizadoras (alumnos de IKD GAZTE), como para el alumnado participante en el módulo y los agentes sociales.

El estudiantado ha valorado positivamente el hecho de haber llevado adelante su propio proyecto entrando en contacto con parte de la realidad social. Con esto, tras haberse esforzado en el diseño y aplicación de los servicios y habiéndose hecho consciente de algunas de sus propias necesidades de aprendizaje, se ve más preparado personal y profesionalmente.

Conclusiones

Al observarse mejoras en competencias relacionadas con el sentido de la iniciativa y un aumento en la motivación hacia el proceso de aprendizaje, se concluye que los principales objetivos del módulo se han cubierto. De esta manera, se favorece el empoderamiento del alumnado en una universidad más participativa en la cual se torna protagonista.

A nivel operativo, consideramos que para la mejora del módulo se precisa de más tiempo en el desarrollo de los proyectos y un aumento del número y de la variedad de agentes sociales. Por último, a nivel académico e institucional, se plantea el reto de cómo expandir esta experiencia a más centros y más alumnos/as y hacerla sostenible.

Este tipo de proyectos permite la mejora curricular y un mayor desarrollo institucional dentro del marco del modelo IKD.

Otros: Este proyecto se realiza con la dirección del Servicio de Asesoramiento Educativo de UPV/EHU en colaboración con el Vicerrectorado de Estudiantes, Empleo y Responsabilidad social y EUSKAMPUS Fundazioa (Consorcio 'IKD GAZTE for excellence'). Cuenta con el apoyo del Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Espacio reservado para clasificación por el comité de selección: NO USAR



SENSE OF INITIATIVE LEARNING MODULE FROM STUDENTS TO STUDENTS

Subiza Mikel, Suarez Maddi, Luque Borja, Irazabal Goiatz, Calderon Oihane, Barrenechea Julieta




“Sense of Initiative and Entrepreneurship” is an individual’s ability to turn ideas into action. It involves creativity, innovation and risk-taking, as well as the ability to plan and manage projects in order to achieve objectives. This supports individuals not only in their everyday lives at home and in society, but also in the work space in being aware of the context of their work and being able to seize opportunities. This should include awareness of ethical values and promote good governance.

Description of the initiative:

The objective of this project is to foster a sense of initiative and **empower** the students within the implementation framework of the new UPV/EHU’s IKD curriculum development model.

It is necessary for students to take centre stage and be co-responsible for their learning, thanks to the self management of learning projects of social interest.

The partnership created for this project involves various levels of collaboration.



The main characteristics of the module are:

- Collaborative
- Interdisciplinary
- Self-management
- Social and civic nature

Methodology: based on three approaches, project-based learning, service-learning and design thinking.

Organisation: 8 sessions(3hs) + work home = **50 hs/2cts**.

In this edition: 28 students from 4 disciplines working in **interdisciplinary groups**.

Results:

Students **designed and did 4 different service-learning projects:**



Diagnostic actions with **Helduak Adi!** (active aging)



To show some city's services with **Erroak**. (social integration)

They've gotten skills of a sense of initiative.

Conclusion:

This initiative, born from IKD’s learning model, suits it very well and is oriented to achieve the main objectives of the model. This case is a trial with a small group of students from four degrees, but in the future the experience could be offered to more students and degrees.

Due to the fact that participant students are the designers of the projects and have full autonomy, they will be prepared, academically and personally, for being active members at university and in society too.




BILERA AKTA

| | | |
|---------------------------------|-------------------|---------------|
| Data: | Ordua: | Lekua: |
| BERTARATUTAKOAK: | AKORDIOAK: | |
| LANDUTAKO GAIAK : | | |
| EGINKIZUNAK: | | |
| OHARRAK | | |
| Hurrengo bileraren data: | Lekua: | Ordua: |

IKD GAZTEREKIN GOSALDU NAHI DUZU?

¿QUIERES DESAYUNAR CON IKD GAZTE?

MARTXOAK 13 MARZO
8:30 - 9:00tan, AULAKIOAN



Liburu zaparradaz asperturik?

**Maiatzak 6, 11etatik aurrera
Aulario azpian**

PARTE HARTU ETA IRABAZI!

6 erronka, 6 sari

KAMIXETA!

- 1 Informazio liburuxka
- 2 Pegatina
- 3 Boligrafoa
- 4 Letra
- 5 Pintxoa
- 6 Erronka

IkaSten IkASIA
 ekimen SENA
 IkaSten IkASIA
 PenSA tu ZURU kaUZ
 Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
 IkaSt